

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 4604

*AGINDUA, 2025eko urriaren 15ekoa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, 2025eko ekitaldirako partaidetzazko toki-garapeneko estrategiaren (PTGE) babeseko proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena. Estrategia hori arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldeak (ATET) onetsi du, arrantza-eremuen garapen jasangarrirako, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) esparruan.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduak Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Plus Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Bidezko Trantsizio Funtsari eta Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen ditu, baita funts horietarako eta honako hauetarako finantza-arauak ere: Asilo, Migrazio eta Gizarteratzeko Funtsa, Barne Segurtasuneko Funtsa, eta Mugak eta Bisatuen Politika Kudeatzeko Laguntza Finantzariorako Tresna. Gainera, lurralde-garapena ezartzen du III. tituluko II. kapituluan.

Aipatutako erregelamenduan zehaztutakoaren arabera, partaidetzazko toki-garapena lurralde-garapeneko modalitate bat da. Eremu geografikoetan oinarritutako partaidetzazko toki-garapeneko estrategien bidez gauzatuko da, eta tokiko interes sozioekonomiko publiko eta pribatuen ordezkariak osatutako tokiko ekintza-taldeek zuzentzen dute.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduak, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsa ezartzen duenak, 2017/1004 (EB) Erregelamendua aldatu eta partaidetzazko toki-garapena arautzen du 30. artikuluan. Hori funtsaren 3. lehenatasunaren barnean jasotzen da: «Kostaldeko, uharteetako eta barrualdeko eremuetan ekonomia urdin jasangarria ahalbidetzea, eta arrantza- eta akuikultura-komunitateen garapena sustatzea».

Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) 3. lehenatasuna Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 5.1.e) artikuluan deskribatutako helburu politikoan sartzten da: «Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa bat, mota guztietako tokiko ekimen eta lurraldeen garapen integratu eta jasangarria sustatuz».

2021-2027 programazio-aldirako partaidetzazko toki-garapena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduko 31. artikulutik 34. artikulura xedatutakoaren arabera arautzen da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 29. eta 30. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Partaidetzazko toki-garapenak, guneetan oinarritutako lurralde-garapeneko tresna gisa, argi utzi du, aurreko programazio-aldian, kostaldeko guneen garapena sustatzeko gai dela eta komunitateen garapen ekonomiko eta sozialaren erronka zehatzei erantzuteko gai dela. Arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldeak lurraldeak dinamizatzeko motorra eta toki-garapenerako baliabide bat dira kostaldeko pertsona eta erakundeentzat. Taldeek ezarritako toki-garapeneko estrategien bidez, arrantza-politika erkidearen (APE) erronkak jorratu ziren, baita hazkunde urdinaren eta klima-aldaketaren erronkak eta enplegua sortzearen erronka ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan partaidetzazko toki-garapena martxan jartzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren programazio-aldiaren esparruan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sail desagertuak arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldeak (Atet) hautatu zituen eta partaidetzazko toki-garapenaren estrategiak (PTGE) onartu zituen. Hautaketa hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 7ko Aginduari jarraikiz egin zen, zeinaren bidez iragartzen baita arrantza-sektoreko partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak (PTGE) eta horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza-taldeak (Atet) hautatzeko eta onartzeko deialdi publikoa (2023ko uztailaren 31ko EHAA, 144. zk.).

2023ko urriaren 6an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren ebazpen bidez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia hautatu eta onartu zen, eta Itsas Garapen Elkarteak, Flag izendatu zen onartutako estrategia kudeatzeko arrantza-sektoreko tokiko ekintza-talde gisa.

Aipatutako estrategiaren aplikazio-eremua osatzen dute Bermeo, Mundaka, Ondarroa, Getaria, Mutriku, Berriatua, Elantxobe, Orio, Hondarribia, Pasaia, Zumaia, Lekeitio, Lemoiz, Zierbena, Santurtzi eta Santurtziko udalerriek eta Donostiako arrantza-portuak.

2024ko urtarrilaren 1ean, Itsas Garapen Taldea tokiko ekintza-taldeak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hitzarmen bat sinatu zuten partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzeko, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) 2021-2027 aldirako programarekin bat eginez.

Onartutako estrategia bat dator EBren tokiko komunitateak sustatzeko helburu politikoarekin eta Itun Berdearen eta ekonomia urdina sustatzearen Europako politikekin, baita Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) programarekin ere.

Laguntzak Atetarekin (Itsas Garapen Elkarteak Flag) lankidetzan kudeatuko dira; izan ere, hark Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren erakunde laguntzaile gisa jarduten du, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin sinatutako hitzarmenean bere gain hartutako baldintzetan eta betebeharrekin.

Agindu honen bidez egiten den deialdiko laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024rako, 2025erako eta 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Plan hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez onartu zen. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren webgunean ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) dago argitaratuta, sailari eskainitako eremuaren barruan eta «Planak eta proiektuak» atalean.

Gainera, laguntza-deialdi honek aurrekontu-zuzkidura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua arabera, Jaurlaritzako sailburuek, gobernukide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, beren sailari dagozkion gaitan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute. Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2025. urterako, arrantza-sektoreko partaidetzazko toki-garapeneko estrategian ezarritako helburuak betetzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak. Estrategia hori Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta, haren bidez,

partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak (PTGE) hautatu eta onartu ziren, eta Itsas Garapen Elkartea, FLAG izendatu zen hori kudeatzeko arrantza-sektoreko tokiko ekintza-talde gisa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 7ko Aginduaz egindako deialdi publikoarekin bat etorriz. I. eranskin bezala erantsi dira oinarriak.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu diezaiokete Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondoreak.

Agindu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 15a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
AMAYA BARREDO MARTÍN.

## I. ERANSKINA

## 1. oinarria.– Xedea eta izaera.

1.– Agindu honen bidez, deialdia egin nahi da Itsas Garapen Elkarte, Flag tokiko ekintza-taldeari (aurrerantzean, Atet) onartutako partaidetzazko toki-garapeneko estrategien (PTGE) babesean gauzatuko diren proiektuen dirulaguntzetarako.

[https://www.euskadi.eus/web01-a2arraku/eu/contenidos/informacion/estrategia\\_local\\_pesca20212027/eu\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2arraku/eu/contenidos/informacion/estrategia_local_pesca20212027/eu_def/index.shtml)

2.– Laguntza horiek hautatutako Atetarekin lankidetzan kudeatzen dira, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horrekin partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak (PTGE) hautatzen eta onartzen dira, eta Itsas Garapen Elkarte, FLAG izendatzen da hura kudeatzeaz arduratuko den tokiko arrantza-ekintzako talde gisa; hark sail horrekin lankidetz hitzarmena sinatu zuen 2024ko urtarrilaren 1ean.

## 2. oinarria.– Eremu geografikoa.

Proiektuak nahitaez gauzatu beharko dira agindu honen II. eranskinean zehaztutako Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldeko zonetan.

## 3. oinarria.– Laguntza-lerroak.

Diruz lagundu beharreko lerro hauek ezarri dira:

a) Ekoizpeneko inbertsioak: enpresa eta negozio-lerro berriak sortzeko, martxan jartzeko eta hasiera batean funtzionamenduan jartzeko neurria, arrantza-sektorearen jardura dibertsifikatuko duten ekimenei lehentasuna emanez, eta, ahal izanez gero, arrantza-udalerrietan ekonomia urdina sustatzeko eta hazteko neurriak. Jardura ekonomiko bat gauzatzea dakarten jarduerak izango dira, ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko helburuarekin. Inbertsio produktiboen barruan sartzen da mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko eta garatzeko edozein proiektu, bai eta enpresa bihurtuko diren pertsona fisikoak ere. Kanpo geratuko dira jardueraren dibertsifikaziotzat hartzen ez diren arrantza eta akuikulturako produktuen eraldaketa-proiektuetako inbertsioak.

## b) Enplegua sortzea:

1) Inoiz enplegurik izan ez duten edo lehen zuten enplegua galdu duten langileak besteren kontura kontratatzea, arrantza-sektorea dibertsifikatzen duten jardueretan edo ekonomia urdinarekin zuzenean lotuta dauden ekimenetan. Nolanahi ere, kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutako lanaldiaren % 50eko enplegu berria izan beharko da, gutxienez.

2) Jardura independenteak sortzea, hau da, langile autonomoak jartzea edo gizarte-ekonomiako araubide juridikoaren pean dauden enpresak sartzeko sustatzen dutenak. Arrantza-sektorea dibertsifikatzen duten jarduerak edo ekonomia urdinarekin zuzenean lotuta dauden ekimenak lehenetsiz.

c) Ekoizpenekoak ez diren inbertsioak: jardura ekonomiko bat martxan jartzea ez dakarten edo jardura ekonomiko bati lotuta ez dauden jarduerak. Era berean, izaera hori izango dute jardura ekonomiko bat izanik edo jardura ekonomiko bati lotuta egonik ere, dagokion eskualdeko lehiaren araubidean eraginik ez duten interes publikoko proiektuek; besteak beste, honako hauek:

1) Arrainaren kontsumoa sustatzeko helburua duten promozio-kanpainak, haren onura eta ezaugarri nutrizionalen balioa ezagutzera ematen dutenak.

2) Pertsonen garapena sustatzeko gaikuntza eta prestakuntza ematen duten enpresen sustapena.

- 3) Itsasoko eta arrantzako ondarea eta arrantza-teknikak ezagutzera emateko jarduerak.
- 4) Arrantza-eremuetako ekosistemen ingurumen-azterlanak.
- 5) Erabiltzen ez diren arrantzako aktiboak berrerabiltzeko azterlanak.
- 6) Arrantza-baliabideak modu jasangarrian ustiatzeko azterlanak.
- 7) Energia-efizientziari buruzko azterlanak edo klima-aldaketarekin lotutako jarduketak.
- 8) Arrantza-sektorearen barruan trantsizio digitala sustatzeko azterlanak.
- 9) Ura aurrezteko eta berrerabiltzeko azterlanak.
- 10) Logistika, garraio eta banaketako lanek eragindako inpaktua murrizteko azterlanak.
- 11) Proiektu berriak sortzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoari buruzko azterlanak.
- 12) Arrantza-sektorean higiena, osasuna, segurtasuna eta lan-baldintzak hobetzeko jarduketak.

#### 4. oinarria.– Proiektuek bete beharreko baldintzak.

##### 1.– Oro har, proiektuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) «Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzaren Programa»ren (EIAAF) 3. lehentasuna lortzen laguntzea, gauzatuko diren arrantza-eremurako onetsi den partaidetzako toki-garapeneko estrategiaren koherentzia mantentzea, eta estrategia horretan zehaztutako helburuak lortzeko ekarpena egitea.

b) Agindu honen II. eranskinean xedatutako Atetaren lurralde-eremu hautagarrian kokatuta egotea. Eremu horretatik kanpo egiten diren jarduketak, azterlanak, bisitak edo topaketak antolatzen dituzten ekoizpenekoak ez diren proiektuak ere onartzen dira, baldin eta taldearen jarduera-esparruan eragin positiboa badute.

c) Teknikaren, finantzaketaren eta ekonomiaren aldetik bideragarriak izatea.

d) Proiektu mota bakoitzari aplikatu beharreko sektoreko araudia betetzea (Europar Batasuneko, estatukoa eta autonomia-erkidegokoa).

e) Arau honetan ezarritako dirulaguntzetarako irizpideak betetzea.

f) Laguntza-eskabidea aurkezteko egunean hasita ez egotea.

g) Laguntza-eskabidea aurkeztu aurretik materialki amaituta ez egotea eta oso-osorik gauzatuta ez egotea.

h) Inbertsioek ez dute ingurumenean ondorio negatibo nabarmenik eragingo.

i) Akuikulturaren arloko inbertsioetan, eskatzaileak akuikultura-sektoreko operadoreak direnean, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren derrigorrezko baimena jaso beharko da, akuikultura-proiektua gauzatzeko.

##### 2.– Diruz lagundu daitezkeen proiektu eta jarduketek jarraian zehazten diren helburu hauetakoren bat lortzen lagundu beharko dute:

a) Balioa handitzea, enplegua sortzea, emakumeen parte-hartzea baloratu eta sustatzea, gazteak erakartzea, arrantza- eta akuikultura-produktuen ekoizpen- eta hornidura-katearen fase guztietan

berrikuntza sustatzea, eta tokiko produktuen eta ekoizpen-jardueraren irudia hobetzea, lurraldeko elikadura-kulturan txertatzeko.

b) Arrantza- eta akuikultura-guneetan ekonomia urdina sustatzea (dibertsifikazioa bultzatuta arrantza komertzialaren sektorearen barruan edo kanpoan), etengabeko ikaskuntza eta enplegua sortzea arrantza- eta akuikultura-eremuetan.

c) Arrantza- eta akuikultura-guneetako ingurumen-ondarea sustatzea eta aprobetxatzea, baita klima-aldaketa arintzeko eragiketak ere.

d) Arrantza- eta akuikultura-guneetako gizarte-ongizatea eta kultura-ondarea sustatzea, baita arrantzako, akuikulturako eta itsasoko kultura-ondarea ere.

e) Arrantza-komunitateen papera toki-garapenean eta arrantza-baliabideen tokiko itsas jardueren gobernantza indartzea.

### 3.– Inbertsio materialetarako ingurumen-arloko betekizunak:

a) Antolatutako edo sektorizatutako hiri-lurzoruetatik eta urbanizagarrietatik kanpo dauden inbertsio materialek geoerreferentziatuta egon beharko dute, ingurumen-ezaugarri edo -eskakizun espezifikoak dituzten eremuetan izango dituzten ondorioak hauteman ahal izateko. Instalazioa edo jarduketa mugikorra bada, mugikortasunaren maila geografikoa zehaztuko da. Eskakizun hori ez zaie aplikatzen ontzietako edo ibilgailuetako ekipamenduak hornitzeko edo hobetzeko inbertsioei.

b) Proiektuak Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 5.3.b) artikuluan emandako definizioari erantzuten badio, eta lege horren 7. artikuluan eta Jardueren Ingurumen Prebentzioari eta Kontrolari buruzko abenduaren 4ko 20/2009 Legearen 7.1.a.1 artikuluan aurreikusitako ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren kasuren batean badago, sustatzaileek ingurumen inpaktuaren adierazpena (IIA) izan beharko dute justifikazio epean, bai eta proiektuaren aldeko ingurumen inpaktuaren txostena ere, ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta edo sinplifikatua den kontuan hartuta, hurrenez hurren.

c) Bateragarritasun txostena arautzen duen eta itsas estrategiekiko bateragarritasun irizpideak ezartzen dituen otsailaren 22ko 79/2019 Errege Dekretuaren aplikazio eremuaren barruko jarduketak barne hartzen dituzten proiektuek (portu azpiegiturak, itsasertza babestekoak, hondartzak berroneratzekoak, dragatzeak eta isurketak, energia berriztagarriak, arrezife artifizialak eta itsas akuikultura, besteak beste) bateragarritasun txostena izan behar dute, eta dagokion baimenarekin egiaztatuko da eskaerak aurkezteko epean.

Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (IIE) behar duten proiektuetan, ebaluazioa betetzen dela egiaztatzen bada, justifikatutzat joko da betekizun hori.

d) Natura 2000 Sareko guneetan, itsas eremu babestuetan edo beste naturagune babestu batzuetan elkarreragina dakarten eragiketa materialen kasuan, jarduketek indarrean dagoen ingurumen araudia bete beharko dute.

Natura 2000 Sareko guneen kasuan, ez da beharrezkoa izango Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 artikulua betetzea, basoko faunaren eta floraren habitat naturalak kontserbatzeari buruzkoa, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri ordenatuaren edo sektorizatuaren gainean egiten diren eragiketa materialei dagokienez. Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (IIE) behar duten proiektuetan, ebaluazioa betetzen dela egiaztatzeak baldintza hori justifikatutzat jotzeko aukera emango du.

e) Ur-masen aldaketa hidromorfologikoak eragiten dituzten jarduketan kasuan, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa beteko dute jarduketek.

f) Instalazioak sortzeko edo handitzeko inbertsioen kasuan, sortutako hondakin organikoak biltzeko eta kudeatzeko baimen-prozeduretan ezarritako baldintzak bete behar dira.

g) Eraikuntzen kasuan, proiektua bateragarria izango da aplikagarriak diren natura guneen, paisaiaren eta kultura ondarearen arau eta gidalerroekin.

h) Kultura ondareko elementuak kontserbatzeko, zabaltzeko edo balioztatzeko jarduketetarako, ondareari buruzko araudian xedatutakoa bete behar da.

i) Jabari publiko hidraulikoan, itsas lehorreko jabari publikoan, zortasun- edo polizia-eremuetan, onura publikoko mendietan edo abelbideetan jarduketak egiten direnean, erakunde eskudunaren nahitaezko baimena edo emakida beharko da jarduketak hasi aurretik.

j) Obra egitea eskatzen duten proiektuen kasuan, proiektua gauzatzean sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisan) (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik) berrerabiltzeko, birziklatzeko edo beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko dira, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiltzen dituzten betelanak barne, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa-protokoloarekin bat etorritik.

k) Gutxienez bost urteko balio-bizitza duten azpiegituretan, inbertsioak klima aldaketaren aurka babestea edo defendatzea bermatuko da, teknikari eskudunak egindako txostenaren bidez.

#### 5. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Laguntza-programa honetarako, 3.000.000 euro bideratu dira guztira. Funts horietatik 2.100.000 euro (% 70) Europako Itsas, Arrantzako eta Akuikultura Funtsari (EIAAF funtsa) dagozkio, eta 900.000 euro (% 30) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei. Era berean, 1.000.000 euro 2025eko ekitaldiko ordainketa-kredituei dagozkie eta, 2.000.000 euro, berriz, 2026ko ekitaldirako konpromiso-kredituei. Zuzkidura honen guztizkotik, zenbatekoak esleituko dira, eta laguntza-lerro bakoitzari urte bakoitzean dagokion banaketa koadro honetan jasotakoa izango da:

Laguntza-lerroa	2025 (€)	2026 (€)	Guztira (€)
1 – Ekoizpeneko inbertsioetarako laguntzak	700.000	1.800.000	2.500.000
2 – Enplegua sortzeko laguntzak	200.000		200.000
3 – Ekoizpenekoak ez diren inbertsioetarako laguntzak	100.000	200.000	300.000
Guztira	1.000.000	2.000.000	3.000.000

2.– Laguntza-lerro hauen barruan soberakinik geratuko balitz, gainerakoei esleituko litzaizkieke eta horien artean banatuko, lehentasun-hurrenkera honekin: 1, 2 eta 3.

#### 6. oinarria.– Onuradunak.

1.– Inbertsio produktiborako proiektuen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik izan gabe ere, aurreikusitako proiektu eta jarduerak egin baditzakete. Haietan partaide diren pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan eta agindua aplikatzeko arauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Onuradunak mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak izan beharko dira, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan egiten den definizioaren arabera.

2.– Enplegua sortzeko proiektuei dagokienez, onuradun izan ahalko dira mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak diren pertsona fisiko zein juridikoak, lehen aipatutako Gomendioan egiten den definizioaren arabera.

3.– Ekoizpenekoak ez diren proiektuetan, onuradun izan ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko eragile hauek:

a) Arrantzaleen kofradiak eta horien federazioak.

b) Arrantzaren sektoreko erakunde profesionalak eta horien federazioak.

c) Ekoizleen erakundeak eta horien federazioak.

d) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, baldin eta arrantzaleen kofradiak edo arrantza-sektoreko erakundeak badira horien bazkide bakarrik.

e) Irabazi-asmoa duten edo ez duten pertsona fisiko eta juridikoak, II. eranskinean adierazitako Atetaren lurralde-eremuan helburu hauetakoren bat badute:

i) Jarduera nautikoak sustatzea.

ii) Lurraldeko arrantza-produktuen promozioa egitea.

iii) Itsasoko eta kostaldeko ingurumena sustatzea.

iv) Itsasoarekin eta arrantzarekin lotutako kultura-ondarea sustatzea.

v) Pertsonak prestatzea eta gaitzea itsas arrantzaren eremuan, dibertsifikazioan edo ekonomia urdinean.

vi) Turismo urdina sustatzea.

4.– Ezin izango dira laguntza-lerro honen onuradun izan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera toki-erakundetzat jotzen direnak eta horien mendeko organismoak, ezta toki-erakundeei atxikitako edo horien mendekoak diren organismo publikoak ere.

7. oinarria.– Onuradun izateko betekizunak.

1.– Onuradun izaera eskuratzeko, betekizun orokor hauek bete beharko dira:

a) Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte eskatzaileek, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, bat etorrita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen edo dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa berau (2023ko otsailaren 17ko EHAA, 34. zenbakia). Zorrak geroratuta eta zatikatuta daudenean eta, gainera, zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu denean betebehar horien ordainketak egunean dituela ulertuko da.

b) Inbertsio-eragiketak edo gastuak ez egotea hasita eskabidea aurkezten den unean, laguntzak eragin sustatzailea izan dezan, Europako Batzordearen abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez, arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresentzako laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzeko da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeko.

2.– Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan debekutzat jotzen diren gorabeheraren batean daudenak:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso izana edo prebarikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso ez izana.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik administrazioarekin egindako kontraturen bat irmo suntsiaraztea eragin ez izana.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dauzkatena, eta/edo dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak beteta ez dauzkatena.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiboak edo penalak dituztenak, eta horretarako legezko debekuak dituztenak, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barnean hartuta, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

h) Ebazpen irmo bidez zehapena jaso dutenak, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan xedatutako terminoetan.

i) Ebazpen irmo bidez zehatua izan da, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutako baldintzetan.

j) Ez dute laguntzarik jasoko Espainiako araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar izan arren halakorik ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, Espainiako legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

k) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota bete ez izana, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

l) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan xedatutako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Halaber, ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, inskripzioa egiteko administrazio-prozedura eten ez izana, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela dioen ebazpen judizial irmorik ematen ez den bitartean.

m) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak Merkataritza Eragiketetan Berankortasuna Ekiditeko Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartutako subjektuak badira, ezingo dira onuradun izan lege horretan xedatutako ordainketa-epreak betetzen ez dituzten enpresak.

3.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 11. artikulua arabera, ezin izango dira agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso honako hauek egin direla egiaztatzen bada:

a) Arau-hauste astunak egin dituztela, Kontseiluaren 1005/2008 (EE) Erregelamenduaren 42. artikulua edo 1224/2009 (EE) Erregelamenduaren 90. artikulua arabera, edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak APEren esparruan onartutako beste legegintzako egintza batzuen arabera.

b) Ez naiz egon, 1005/2008 (EE) Erregelamenduaren 40. 3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Batasuneko legez kanpoko arrantza-ontzi deklaratu eta arautu gabeen zerrendan sartuta dagoen arrantza-ontziren baten ustiapenean, kudeaketan edo jabetzan inplikaturik, edo erregelamendu horren 33. artikuluan ezarritakoaren arabera hirugarren herrialde ez-kooperatzaileetat hartzen diren herrialdeen bandera duen ontziren baten ustiapenean, kudeaketan edo jabetzan nahasita.

c) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/99/EE Zuzentarauaren 3. eta 4. artikuluetan ezarritako ingurumen-delituren bat egin ez dutela, laguntza-eskaera Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 27. artikulua arabera aurkezten den kasuetan.

d) Arrantza Politika Erkidearen arau-hauste astunik egin ez duela.

e) Behin betiko ebazpen bidez iruzurra egin duela zehaztu ez bada, 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan definitzen den moduan, EIAFren edo Arrantza eta Akuikulturako Europako Itsas Funtsaren (EIAAF) testuinguruan.

Horri dagokionez, iruzur edo irregulartasun gisa har daitekeen edozein gertakari SNCari (Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala) jakinarazi ahal izango zaio, honako honen bidez:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/paginas/inicio.aspx>

4.– 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 198. artikulua arabera, eta salbuetsi gabeko kasuetan, onuradunak betekizun hauek izango ditu:

a) Diruz lagundutako aldi osoan finantzaketa-iturri egonkor eta nahikoak izatea jarduerari eusteko, eta horren finantzaketan parte hartzeko.

b) Proposatutako ekintza edo lan-programa gauzatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta kualifikazio profesionalak izatea.

c) Proposatutako ekintza edo lan-programa gauzatzeko finantza-gaitasun eta gaitasun operatiboa izatea.

5.– Aurreko apartatuetan ezarritako betebeharrak eta inguruabarrak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko dira, 8.4.l) oinarrian eta VII. eranskinean ezarritakoaren arabera.

6.– 1.a) eta 1.c) apartatuetan ezarritako betekizunak onuradun izateko zein emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko dira. Beraz, baldintza horiek betetzen direla egiaztatutako da dirulaguntza ematean eta ordainketak egitean.

7.– Interesdunek 3. atalean ezarritako baldintzak betetzen jarraitu beharko dute eskabidea aurkeztu eta gero, eta, onuradun gertatzen badira, diruz lagundutako jarduketak gauzaten diren aldi osoan eta onuradunei dirulaguntzaren azken ordainketa egiten zaienetik bost urteko epean.

8. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Pertsona fisikoek modu presentzialean zein elektronikokan aurkez ditzakete eskabideak:

– Aurrez aurreko modua: eskatzaileek Itsas Garapen Elkarte, Flag Arrantza Sektoreko Tokiko Ekintza Taldearen egoitzetako batean aurkeztu beharko dute eskabidea (Zamudioko parke teknologikoa, Ibaizabal bidea, 101. eraikina, 111. bulegoa; edo Donostiako Zuatzu Enpresa Parkea, Ulia 1 eraikina, 4. lokala; edo Bermeoko Errosape Moila z.g., San Pedro Arrantzaleen Kofradiaren eraikina).

– Modu elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokan sartuta aurkeztuko dira eskabideak, oinarri honen 3. apartatuan adierazten diren helbideen bidez.

Adierazitako bide horietaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako beste edozein bideren bidez ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak. Eskabidea eta dokumentuak aurkeztean modu presentziala edota elektronikoa erabili denean, horrek ez du esan nahi prozeduraren gainerako izapideetan bide hori bera erabili beharko denik; aitzitik, edozein unetan aldatu ahal izango da modua. Eskabidearen ondorengo izapideak helbide elektronikokan honetan egingo dira, «Nire karpeta» bidez:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Pertsona juridikok baliabide elektronikoz aurkeztuko dituzte eskabideak, oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbide elektronikokan bidez.

Eskabidearen ondorengo izapideak helbide elektronikokan honetan egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabideen eta horiek aurrez aurre nahiz elektronikoki izapidetzeari buruzko jarraibideen ereduak eskuragarri egongo dira, behar diren gainerako eredu edo memoriekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokan, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1051708>

Izapideak elektronikoki egiteko, helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza, ahalordetzeen erregistro elektronikoaren bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

4.– Laguntza-eskatzailleek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide-inprimakia; eskuragarri egongo da oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbide elektronikoan. Aurrez aurreko modua erabiliz gero, eskabidea modu informatikoan bete eta grabatu ostean, paperean bidali beharko da, sinatuta.

b) Pertsona fisikoa izanez gero, hirugarrenen alta, eta, pertsona juridikoa izanez gero, hirugarrenen alta, ahalordetze-eskriuraren fotokopia eta entitatearen eratze-eskriuraren eta estatutuen fotokopia, dagokien erregistroan zigilatuta.

Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke, helbide honetan eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Era berean, zerbitzu horren bidez informazioa aldatu edo eguneratu daiteke, dagoeneko Administrazioari eman bazaio.

c) Eskatzailea arrantza-sektoreari lotutako pertsona baten familia-unitateko kide bada, bertan gutxienez urtebete daramala egiaztatzen duen agiria. Horretarako, dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean alta emanda dagoela egiaztatu beharko du, eta arrantza-etekinen deklarazioa PFEZean, azken ekitaldian.

d) Armadorearen edo arrantza-sektorearekin lotutako enpresaren kasuan, izaera hori egiaztatu beharko du.

e) Enplegua edo autoenplegua sortzeko edo besteren konturako kontratazio kasuetan, enplegatzeko zailtasun berezia duten kolektiboek egoera hori egiaztatu egin beharko dute: emakume edo gazteek, iraupen luzeko langabeek, 55 urte baino gehiago dituzten langabeek eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun funtzionala duten pertsonak. Era berean, II. eranskineko udalerrietan erroldatuta daudela egiaztatu beharko dute, alta-data adierazita.

f) Besteren konturako kontratazioaren kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: lan-kontratuen kopia, Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela egiaztatzeko dokumentazioa, kontratazioaren hilabeteko TC2a, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ematen duen «Enpresan alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» dokumentua, dirulaguntza eskatu eta aurreko bi urteetako, eta «Enpresan alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena», kontratazio eguneko.

g) Jarduera independenteen sorreraren kasuan, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena eta Gizarte Segurantzaren erregimeneko alta.

h) Pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkartzei, ondasun-erkidegoei edo edonolako unitate ekonomiko edo nortasun juridikorik gabeko ondare bereiziei dagokienez, kide guztiek sinatutako agiria. Bertan jasoko dira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, baita horietako bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkari edo ahalduaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena ere (hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean).

i) Jarduera gauzatuko den ondasun higiezina erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren kopia, hura jabetza osoan edo partekatuan, errentamenduan edo gozamenean izan.

j) Eraikuntza- edo birgaitze-obrak egingo badira, proiektu teknikoa aurkeztuko da, baita hura gauzatzeko behar diren baimen eta lizentziak ere, edo, bestela, hura eskuratzeko eskabidea.

k) Proiektua baloratzeko memoria (IV., V. edo VI. eranskina). Horren barne sartuko da proiektuaren deskribapena, eta baloratu nahi diren puntu guztiak jaso beharko ditu. Ez dira baloratuko jaso ez direnak.

l) Erantzukizunpeko adierazpena (VII. eranskina), agindu honetan eskatutako betekizunak betetzen direla eta aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla eta onuradun-izaera lortzeko debekuetako ezeinetan ez dagoela adierazteko, debeku horietako ezeinetan ez egotearen lekukotza judizialik, ziurtagiri telematiko edo datu-transmisiorik, edo administrazio-ziurtagiririk lortzerik izan ez den kasuetan.

m) Erantzukizunpeko adierazpena (VII. eranskina), enpresen deslokalizaziorik ez gauzatzearena, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

n) Ekoizpenekoak diren eta ez diren inbertsio-proiektuen kasuan, funts propioen eta finantzaketaren ziurtagiria.

o) Aurrekontuak edo proforma fakturak, aurrekontuen laburpen-taula. Horri dagokionez, hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira hornikuntza eta zerbitzuen kasuan gastuak 15.000 euro edo gehiagokoak (BEZik gabe) badira, eta, obren kasuan, gastuak 40.000 euro edo gehiagokoak (BEZik gabe) badira. Eta hori guztia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako zenbatekoen arabera.

Bestalde, laguntzaren eskatzailea botere adjudikatzailerak bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legean definitzen den bezala, eta kontratazio bat egin behar badu, egiaztatu beharko da hura azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera egin dela; era berean, egiten dituzten kontratuek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen mende egon beharko dute, eta laguntza ordaintzeko justifikazio-dokumentazioan, berriz, kontratuak kontratuen legearen arabera egin direla justifikatu beharko da.

p) Aurreko hiru ekitaldietan jasotako beste de minimis laguntza orori buruzko berriazko adierazpena, III. eranskin gisa gehitu den ereduaren arabera.

5.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere. Hala ere, eskatzaileak berriaz egin dezake egiaztatze horren aurka; baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Bestalde, pertsona edo entitate eskatzailearen edo onuradunaren erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla.

Dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari zuzenean eskuratu ditzan beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak, hala xedatuta baitago urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan.

6.– Eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berriaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluekin bat etorriz. Alabaina, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu dituzten adierazi beharko dute. Eskabidea aurkeztuz gero, baimena emango da erregistroa kudeatzen duen organoak dokumentazio hori eskuratzeko. Horrek ez du esan nahi baimena berriaz ukatu ezin denik. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

7.– Eskabideak akatsen edo zehaztasun ezaren bat badu –hirugarrenei alta ematea izan ezik–, interesdunari aginduko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzentzeko edo beharrezko diren agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, baldin eta hirugarren baten alta ematen ez bada, ebazpena eman ondoren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

8.– Edonola ere, Atetak beharrezkotzat jotako bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko.

9.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. 7.1.c) oinarrian ezarritako baldintzak betetzeko, agindua argitaratu aurretik aurkeztutakoa onartuko da eskaera-datatzat, betiere hasi ez izanaren akta edo dagokion egiaztapena egin bada.

10.– Laguntza jasotzeko eskabidea eta eskatutako agiriak nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

11.– Eskatzaile bakoitzak eskabide bat bakarrik aurkeztu ahal izango du laguntza-lerro bakoitzeko, jardueraren dibertsifikazio ekonomikoa xede duten arrantza-sektoreak sustatutako proiektuek salbu.

12.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, hasieran aurkeztutako aurrekontuaren aldaketak aurkeztu ahal izango dira. Aldaketak gorantz egiten badira, behar bezala justifikatutako bi aldaketa baino ezin izango dira aurkeztu, eta azkena hartuko da kontuan. Ez da onartuko hasieran aurkeztutako aurrekontuaren goranzko aldaketarik eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

13.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskatu eta izapidetzean, Atetek ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 86. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo du (91/2023 Dekretua, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

9. oinarria.– Diruz laguntzeko moduko gastuak.

1.– Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastutzat hartuko dira agindu honetan araututako laguntzen helburu diren jardueretan egindako inbertsioak edo gastuak.

2.– Laguntzaren xede diren inbertsioek edo gastuek ez dute hasita egon behar laguntza eskatzen den egunean ezta ez hasteko akta egin den egunean ere, agindu honen 15.3 oinarrian adierazitako baldintzetan.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak onuradunak benetan bere gain hartutakoak izango dira, eta irizpide hauek bete behar dituzte:

a) Ekintzak edo lan-programak irauten duen bitartean egitea.

b) Ekintzaren edo proiektuaren guztizko aurrekontu zenbatetsian kontsignatuta egotea.

c) Dirulaguntzaren xede diren jarduketak gauzatzeko beharrezkoak izatea.

d) Identifikatzeko eta egiaztatzeko modukoak izatea, bereziki onuradunaren kontabilitatean jasota egotea eta onuraduna kokatuta dagoen herrialdean aplikatu beharreko kontabilitate-arauekin bat etorritz zehaztea, onuradunak gastuen arloan egin ohi dituen kontabilitate-praktiken arabera.

e) Zerga- eta gizarte-legeria aplikagarrian xedatutakoa betetzea.

f) Gastuak zentzuzkoak eta justifikatuak izatea, eta finantza-kudeaketa onaren irizpidea betetzea, bereziki ekonomiari eta efizientziari dagokionez.

4.– Ekoizpeneko inbertsioen dirulaguntzen kasuan, honako hauek joko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:

a) Enpresa-planari lotutako ondasun higiezinak eraiki edo birgaitzea.

b) Makineria eta ekipamendu berrien erosketak, ondasunaren merkatu-balioraino. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baina laguntzaren xede ez diren inbertsio materialen kasuan, horiek amortizatzeko kostua eragiketarako irauten duen bitartean bakarrik lagundu ahal izango da diruz. Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren inbertsio hartuko dira egiten diren inbertsioak, jarduera gauzatzen den bitartean erabiltzen direnak, baina, jarduera gauzatu ondoren, egindako inbertsioak laguntzaren onuradunaren eskura jarraitzen badu, beste erabilera batzuetarako.

c) a) eta b) ataletan jasotako gastuetako kostu orokorrak (adibidez, arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak), % 10eko mugarekin gehienez ere.

d) Ibilgailu industrial bat erostea, betiere diruz lagundutako jarduera ibilgailu horretan egiten bada. Kasu horretan, ibilgailu hauek bakarrik lagundu ahal izango dira diruz: 0 emisio-etiketa edo etiketa urdina dutenak (bateria duten elektrikoak, BEV), autonomia hedatuko elektrikoak (REEV), elektriko hibrido entxufagarriak (PHEV) edo eko-etiketa dutenak, hau da, ibilgailu hibridoak, gasdunak edo biak.

e) Arrantza-ontzien matrikulen erregistroko hirugarren zerrendako arrantza-ontziak turismo-arrantza egiteko egokitzea; eta laugarren zerrendako akuikulturarako ontzi laguntzaileak, bigarren zerrendako bidaiarien garraiorako ontziak eta seigarren zerrendako ontziak erostea edo aldatzea. Bigarren, laugarren eta seigarren zerrendako itsasontziek berriak edo matrikula berrikoak izan behar dute; 24 metrotik beherako luzera izan behar dute, 25 urte baino gutxiago izan behar dituzte eta dagokion itsas agintaritzak erosten diren unean bertan onartu behar ditu. Arrantza-ontzi bat turismo-arrantzarako egokitzeko proiektuen kasuan, esku-hartzeak behar bezala bete beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantza-erakustaldiei eta marinela- edo arrantza-turismoari buruzko maiatzaren 25eko 143/2021 Dekretuan jasotakoa.

f) Ondasun ukiezinetan eginiko inbertsio hauek: programa informatikoak erosi edo garatzea eta patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta marka erregistratuak eskuratzea.

g) Dirulaguntzaren xede den jarduera garatzeko tresnak eta altzariak.

h) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak, gehienez ere % 10eko mugarekin.

i) Zerikusia duten beste azpiegitura batzuk.

j) Aplikatu beharreko legeriaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

5.– Enplegua sortzen den kasuetan, diruz lagundu daitezkeen gastuak kontratazioari lotutakoak izango dira, eta kostu sinplifikatuen sistema erabiliko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 53. artikulua arabera.

6.– Ekoizpenekoak ez diren inbertsioen kasuan, kasu zehatz bakoitzean diruz lagundu daitezkeen kostuak aztertuko dira, betiere 3.c), 9 eta 10. oinarri dagokienez.

7.– Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, oinarri honetan aurreikusitako gastuak, eta abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

10. oinarria.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritako diruz lagundu ezin daitezkeen eragiketei edo gastuei kalterik egin gabe, kontzeptu hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

a) Onuradunak laguntza eskatu aurretik edo ez hasteko akta egin aurretik gauzatu edo ordaindu diren eragiketak, agindu honen 15. oinarriaren 3. puntuan adierazitako moduan.

b) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

c) Berandutze-interesak, errekarquak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen eta judizios kanpokoen gastuak.

d) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetara eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.

e) Zeharkako zerga berreskuragarriak.

f) Soilik egoitza gisa erabiltzeko etxebizitzak, eta soilik era pertsonalean eta etxean erabiltzeko ibilgailuak eta ondasunak.

g) Ondasunak eta zerbitzuak erostean, faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.

h) Ekipo eta makinak ordezkatzeko edo jartzeko inbertsioak, erosketa berria hobekuntza teknologikorako edo etekina hobetzeko inbertsioak direnean izan ezik. Ezingo dira diruz lagundu narriatutako elementuak ordezkatzeko lanak edo mantentze- eta konponketa-lanak (adibidez, oholak ordezteak, kroskoa berriz iltzatzea edo itsasontziak margotzea edo bikeztatzea).

i) Finantza-errentamendua (erosteko aukera ematen duen alokairua edo «leasing»a). Bestalde, ez dira diruz lagunduko errentatzailearen marjina, interesak birfinantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguramendu-gastuak.

j) Telefono-terminalak eskuratzea, nahiz eta horiek aplikazio informatikoak barne hartu.

k) Erabilitako material eta ekipamenduen erosketa.

l) Eragiketarekin zuzenean lotuta ez dauden garraio-elementuen kostua.

m) Sozietate bat eratzeko eta hasteko gastuak.

n) Inbertsio-proiektuarekin lotuta ez dauden lanak, etxebizitzak, jantokienak, edertzeko lanak, aisialdirako ekipamenduak eta antzekoak.

o) Finantzatu nahi den proiektuaren jarduerarekin loturarik ez duten urbanizazio-lanak.

p) Eraikinak edo lokalak erostea.

q) Lurzoru eraiki gabeak edo eraikiak eskuratzea.

r) 100 eurotik beherako (BEZa kanpo) fakturak.

11. oinarria.– Ekoizpeneko inbertsioetarako laguntzen gehieneko zenbatekoa.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren II. tituluko IV. kapituluaren babespean egiten diren proiektuen finantzaketa honako hau izango da:

a) Arrantza-sektorearen dibertsifikazio-proiektuen kasuan, gehieneko laguntzaren ehunekoak diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 50ekoa izango da; gainerako kasuetan, berriz, % 40koa.

b) Kostaldeko artisau-arrantzarekin lotutako eragiketen kasuan, laguntza % 100eraino handitu ahal izango da. Ondorio horietarako, itsasbazterreko arrantza artisautzat jotzen dira itsas arrantzako ontziek edo barne-arrantzako ontziek betetzen dituzten jarduerak –guztira 12 metro baino gutxiagoko luzera dutenak eta arrasteko arrantza-aparailurik erabiltzen ez dutenak– eta oinezko arrantzaleen jarduna, itsaskilariak barne.

c) Ekoizle-antolakundeek, ekoizle-antolakundeen elkarteek edo lanbide arteko elkarteek gauzatutako eragiketen kasuan, proiektuetarako laguntzaren gehieneko ehunekoak ez du gaindituko proiektuan diruz lagundu daitezkeen gastuen % 75.

d) Arrantzale-antolakundeek edo arrantza-sektoreko beste kolektibo onuradun batzuek egindako eragiketen kasuan, proiektuetarako laguntzaren gehieneko ehunekoak ez du gaindituko diruz lagun daitezkeen gastuen % 60.

e) Proiektuetarako laguntzen gehieneko zenbatekoa diruz laguntzeko diren gastuen % 100eraino handitu daiteke, eragiketak gutxienez irizpide hauetakoren bati erantzuten badio: interes kolektiboa, edo onuradun kolektiboa, edo ezaugarri berritzaileak izatea, hala badagokio, toki-mailan eta, emaitzetarako sarbide publikoa bermatzea. Irizpide horiek betetzen direla egiaztatzeko, indarrean dagoen «Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programa»ren (EIAAF) proiektuak hautatzeko irizpideen dokumentuan ezarritakoa izan behar da kontuan.

f) Ontzien Matrikulen Erregistroko 6. zerrendako itsasontzien kasuan, laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko erosketa-kostuaren % 25, eta ez du gaindituko 75.000 euroko zenbatekoa.

2.– PTGEari atxikitako ekoizpen-proiektuetarako laguntzen babespean, diruz lagundu ahal izango dira EIAAFren programako beste helburu espezifiko batzuen bidez finantzatutako eragiketak, konpentsaziozkoak izan ezik, betiere PTGEaren sartuta badaude eta toki-mailan duten kudeaketa eta eragina argi eta garbi justifikatzen bada. Horrelako eragiketarako laguntzak ematen direnean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduak proiektu horietarako ezarritako dirulaguntzen hautagarritasun-irizpide eta hautagarritasun- eta intentsitate-baldintza berberak eta Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programa (EIAAF) aplikatuko dira.

3.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak erauzteko, merkaturatzeko eta eraldatzeko arrantza-sektoreko pertsonak edo entitateek egindako ekoizpen-proiektuetarako laguntzen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 10.2 artikuluan ezarritako estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko salbuespenaren onuradun ez badira, Batzordearen abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduaren 54. eta 55. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da. Kasu horretan, arestian aipatutako gehieneko laguntza-ehunekoak aplikatuko dira, eta proiektu bakoitzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa.

4.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak erauzten, merkaturatzen eta eraldatzen dituen arrantza-sektorekoak ez diren pertsonak edo entitateek egindako ekoizpen-proiektuetarako laguntzek behar bezala bete beharko dute Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak ezarritako minimis laguntzen araubidea, minimis laguntzei Europar Batasunaren

Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulak aplikatzeari buruzkoa. Kasu horretan, arestian aipatutako gehieneko laguntza-ehunekoak aplikatuko dira, eta proiektu bakoitzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa. Era berean, erregelamendu honek onuradun berarentzako onartzen dituen laguntzen guztizko zenbatekoa gehienez 300.000 euro izango da sustatzaile bakoitzeko, hiru urteko epean.

12. oinarria.– laguntzaren zenbatekoa enplegua sortzeko proiektuen kasuan.

Enplegua sortzeko proiektuen kasuan, laguntzaren zenbatekoa ez da diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko baten arabera kalkulatu; aitzitik, sortutako lanpostu bakoitzeko ordainduko den zenbateko finko bat izango da, ordainketa bakar batean emango dena, kontratatutako lanaldiaren arabera. Taula honen arabera emango da:

	Emakumea, 40 urtetik beherako gaztea, 55 urtetik gorako langabea, desgaitasuna* duen pertsona edo iraupen luzeko langabea (€)	Gainerako pertsonak (€)
Autonomia, ekonomia urdineko jardueretan edo arrantza-sektorearen dibertsifikazioko jardueretan	6.240	5.760
Autonomia, ekonomia urdinarekin zerikusirik ez duten jardueretan	5.280	4.800
Besteren konturako langileak, arrantza-sektorearen dibertsifikazioko jardueretan	5.821	5.292
Arrantza-sektoretik kanpoko besteren konturako langileak, ekonomia urdineko jardueretan	4.158	3.780

\* % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

13. oinarria.– Ekoizpenekoak ez diren inbertsioetarako laguntzen zenbatekoa.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren II. tituluko IV. kapituluaren babespean egiten diren proiektuen finantzaketa honako hau izango da:

a) Ekoizpenekoak ez diren inbertsio-proiektuen laguntzaren gehieneko ehunekoa eragiketan diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 50ekoa izango da.

b) Kostaldeko artisau-arrantzarekin lotutako eragiketen kasuan, laguntza % 100eraino handitu ahal izango da. Ondorio horietarako, itsasbazterreko arrantza artisautzat jotzen dira itsas arrantzako ontziek edo barne-arrantzako ontziek betetzen dituzten jarduerak –guztira 12 metro baino gutxiagoko luzera dutenak eta arrasteko arrantza-aparailurik erabiltzen ez dutenak– eta oinezko arrantzaleen jarduna, itsaskilariak barne.

c) Ekoizle-antolakundeek, ekoizle-antolakundeen elkarteek edo lanbide arteko elkarteek gauzatutako eragiketen kasuan, proiektuetarako laguntzaren gehieneko ehunekoak ez du gaindituko proiektuan diruz lagundu daitezkeen gastuen % 75.

d) Arrantzale-antolakundeek edo arrantza-sektoreko beste kolektibo onuradun batzuek egindako eragiketen kasuan, proiektuetarako laguntzaren gehieneko ehunekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitezkeen gastuen % 60.

e) Proiektuetarako laguntzen gehieneko zenbatekoa diruz laguntzeko diren gastuen kostuen % 100eraino handitu daiteke, eragiketak gutxienez irizpide hauetakoren bati erantzuten badio: interes kolektiboa, edo onuradun kolektiboa, edo ezaugarri berritzaileak izatea, hala badagokio, toki-mailan eta, emaitzetarako sarbide publikoa bermatzea. Irizpide horiek betetzen direla egiaztatzeko, indarrean dagoen Itsas Funtzaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programaren (EIAAF) proiektuak hautatzeko irizpideen dokumentuan ezarritakoa izan behar da kontuan.

f) Arrantza-sektoreari lotutako ekitaldiak edo ekonomia urdinarekin lotutako jarduerak, 6.000 eurora arte.

2.– PTGEari atxikita egon baina ekoizpenekoak ez diren proiektuetarako laguntzen babesean, diruz lagundu ahal izango dira Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programaren (EIAAF) beste helburu espezifiko batzuen bidez finantzatutako eragiketak, konpentsaziozkoak izan ezik, betiere PTGEaren sartuta badaude eta toki-mailan duten kudeaketa eta eragina argi eta garbi justifikatzen bada. Horrelako eragiketarako laguntzak ematen direnean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduak proiektu horietarako ezarritako dirulaguntzen hautagarritasun-irizpide eta hautagarritasun- eta intentsitate-baldintza berberak eta Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programa (EIAAF) aplikatuko dira.

3.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak erazteko, merkaturatzeko eta eraldatzeko arrantza-sektoreko pertsonak edo entitateek egindako proiektu ez-produktiboetarako laguntzen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 10.2 artikuluan ezarritako estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko salbuespenaren onuradun ez badira, Batzordearen abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduaren 54. eta 55. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da. Kasu horretan, arestian aipatutako gehieneko laguntza-ehunekoak aplikatuko dira, eta proiektu bakoitzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa.

4.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak erazten, merkaturatzen eta eraldatzen dituen arrantza-sektorekoak ez diren pertsonak edo entitateek egin dituzten eta ekoizpenekoak ez diren proiektuetarako laguntzek behar bezala bete beharko dute Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak ezarritako minimis laguntzen araubidea. Kasu horretan, arestian aipatutako gehieneko laguntza-ehunekoak aplikatuko dira, eta proiektu bakoitzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa. Era berean, erregelamendu honek onuradun berarentzako onartzen dituen laguntzen guztizko zenbatekoa gehienez 300.000 euro izango da sustatzaile bakoitzeko, hiru urteko epean.

#### 14. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

1.– Proiektuak baloratzeko, eskabideari erantsitako proiektuaren memoria deskribatzailea eta enpresa-plana (IV., V. edo VI. eranskinak) hartuko dira kontuan. Plan horretan jasotako alderdiak bakarrik izango dira kontuan eta, maila handiagoan, dokumentuen bidez frogatutakoak.

1.– Sustatzailea (gehienez 30 puntu lor daitezke)	Puntuak
1.1.– Arrantza eta akuikulturako sektorea	15
1.2.– Sustatzaile kolektiboa	10
1.3.– Emakumea edo gaztea	5

2.– Proiektuaren ekarpena ekonomia urdina eta PTGE-A ezartzeko orduan (gehienez 35 puntu lor daitezke)	Puntuak
2.1.– Ekonomia urdina	10
2.2.– Proiektuak PTGEaren estrategiak betetzen laguntzen du (gehienez 25 puntu lor daitezke)	
2.2.1.– Proiektuak estrategia bat edo bi betetzen laguntzen du	5
2.2.2.– Proiektuak hiru edo lau estrategia betetzen laguntzen du	9
2.2.3.– Proiektuak bost edo sei estrategia betetzen laguntzen du	15
2.2.4.– Proiektuak zazpi edo zortzi estrategia betetzen laguntzen du	23
2.2.5.– Proiektuak bederatzi edo hamar estrategia betetzen laguntzen du	25

3.– Proiektua (gehienez 35 puntu lor daitezke)	Puntuak
3.1.– Ekoizpeneko inbertsio-proiektuak	
3.1.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasunak eta koherentzia, trakzio-proiektu gisa duen garrantzia eta lurraldean ezartzeko premia (gehienez 15 puntu lor daitezke)	
3.1.1.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasuna eta koherentzia	5
3.1.1.2.– Proiektuak hura ezarriko den lurralderako izango duen garrantzia	5
3.1.1.3.– Proiektuaren premia hura ezarriko den lurraldean	5
3.1.2.– Sustatzailearen ibilbidea eta gaitasun teknikoa eta kudeatzekoa (gehienez 8 puntu lor daitezke)	
3.1.2.1.– Sustatzailearen prestakuntza	4
3.1.2.2.– Sustatzaileak proiektuaren jardueran edo jarduera ekonomikoak martxan jartzen duen esperientzia	4
3.1.4.– Proiektuaren tutoretza (gehienez 5 puntu lor daitezke)	
3.1.3.1.– Ekintzailertan espezializatutako entitate baten enpresa-ideia garatzeko gainbegiratzea/tutoretza	2
3.1.3.2.– Ekintzailertan espezializatutako entitate baten ekintzailertza-ibilbidean parte hartu izana	3
3.1.4 – Finantzatzeko gaitasuna	3
3.1.5.– Laguntza publikoarekiko mendekotasuna	3
3.1.6.– Berrikuntza-maila	1
3.2.– Enplegua sortzeko proiektuak	
3.2.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasunak eta koherentzia, eta garrantzia eta premia (gehienez 15 puntu lor daitezke)	
3.2.1.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasuna eta koherentzia	5
3.2.1.2.– Proiektuak hura ezarriko den lurralderako izango duen garrantzia	5
3.2.1.3.– Proiektuaren premia hura ezarriko den lurraldean	5
3.2.2.– Proiektuak enplegua sortzeko duen gaitasuna (gehienez 10 puntu lor daitezke)	
3.2.2.1.– Enplegua (gehienez 5 puntu lor daitezke)	
3.2.2.1.1.– Enplegu bat	3
3.2.2.1.2.– Bi enplegu edo gehiago	5
3.2.2.2.– Egoera ahulean den kolektiboaren enplegua (gehienez 5 puntu lor daitezke)	
3.2.2.2.1.– Enplegu bat	3
3.2.2.2.2.– Bi enplegu edo gehiago	5
3.2.3.– Sustatzailearen ibilbidea eta gaitasun teknikoa eta kudeatzekoa (gehienez 6 puntu lor daitezke)	
3.2.3.1.– Sustatzailearen prestakuntza	3
3.2.3.2.– Sustatzaileak proiektuaren jardueran edo jarduera ekonomikoak martxan jartzen duen esperientzia	3
3.2.4.– Proiektuaren tutoretza (gehienez 3 puntu lor daitezke)	3
3.2.4.1.– Ekintzailertan espezializatutako entitate baten enpresa-ideia garatzeko gainbegiratzea/tutoretza	1
3.2.4.2.– Ekintzailertan espezializatutako entitate baten ekintzailertza-ibilbidean parte hartu izana	2
3.2.5.– Berrikuntza-maila. Proiektu berritzailea	1
3.3.– Ekoizpeneko ez diren inbertsio-proiektuak	
3.3.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasunak eta koherentzia, eta garrantzia eta premia (gehienez 15 puntu lor daitezke)	
3.3.1.1.– Proiektuaren memoriaren kalitatea, xehetasuna eta koherentzia	5
3.3.1.2.– Proiektuak hura garatuko den (ezagutza) eremurako izango duen garrantzia	5
3.3.1.3.– Proiektuak hura ezarriko den lurraldean edo garatuko den (ezagutza) eremuan duen premia	5

3.– Proiektua (gehienez 35 puntu lor daitezke)	Puntuak
3.3.2.– Sustatzailearen ibilbidea eta gaitasun teknikoa eta kudeatzekoa (gehienez 8 puntu lor daitezke)	
3.3.2.1.– Sustatzailearen prestakuntza	4
3.3.2.2.– Sustatzaileak proiektuaren jardueran duen esperientzia edo ezagutza	4
3.3.3 – Finantzatzeko gaitasuna	3
3.3.4 – Laguntza publikoarekiko mendekotasuna	3
3.3.5.– Berrikuntza-maila	6

2.– Proiektuek, hautatuak izateko, gutxienez 40 puntu lortu behar dituzte.

3.– Proiektuak baloratzeko orduan, gaztetzat hartuko dira 40 urtetik beherako pertsonak.

4.– Balorazio horretarako, enplegua aurkitzeko zailtasun berezia duten kolektibo gisa hartzen dira iraupen luzeko langabeak (gutxienez urtebete langabezian daramatenak), 55 urtetik gorako langabeak eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta duten pertsonak.

5.– 55 urtetik gorako pertsonen dagokienez, 55 urte edo gehiago izan beharko dituzte laguntza-eskaera egiteko unean.

6.– Proiektuak baloratzeko orduan, arrantza-sektoretzat hartuko dira, arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen dituzten laguntza-eskatzaileez gain, arrantza-sektorerara atxikitako pertsonen familia-unitateko kide diren eskatzaileak, saregileak, paketatzaileak eta neskatalak, baita industria laguntzailea ere.

15. oinarria.– Laguntzen kudeaketa eta esleitzeko prozedura.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak lehiaketa bidez esleitu dira, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan xedatzen den moduan.

2.– Atetek, kudeaketako erakunde kolaboratzaile gisa, eskabideak eta dokumentazioa aztertuko ditu, beharrezko informazioa ageri den egiaztatzeko, eta eskatzen diren laguntzak neurrirentzat egokiak diren ikusteko. Nahitaez aurkeztu behar diren agiriez gain, nahi adina informazio eta dokumentazio eskatu ahal izango da diruz lagundu beharreko jarduerara eta horrek merkatuko prezioen arabera duen kostua hobeto ezagutzeko, bai eta laguntzaren xedea argitzen lagunduko duen edozein alderdi ere. Era berean, egokitzen jotako behar adina txosten eskatu ahal izango dira aurkeztutako proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren inguruan.

3.– Atetek in situ egiaztatu beharko du laguntza eskatzen den proiektuak eta jarduerak ez daudela hasita eskabidea aurkeztu aurretik, eta, inbertsio materialen kasuan, ez hasteko aurretiazko akta egingo du. Egiaztatu beharrekoa une horretan Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan ez badago, sailkapen-sozietate batek egindako txostena onartuko da aldez aurreko edo ez hasitako aktatzat. Inbertsio ez-materialak egin ez direla egiaztatuz, dagokion fakturaren data baliatuko da, eta, enplegua sortzeko proiektuen kasuan, gizarte-segurantzaren araudian alta emandako data.

4.– Era berean, Atetak in situ egiaztatu beharko du dirulaguntzaren xede diren proiektuak eta jarduerak oraindik amaitu ez direla eta bere osotasunean gauzatu ez direla, eta, inbertsio materialen kasuan, aurretiazko akta edo amaitu ez izanaren akta egingo dira; dena dela, ez da beharrezkoa izango materialak ez diren inbertsioen kasuan. Ikuskatu beharrekoa Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoenean, aitortutako sailkapen sozietate batek egindako txostena onartuko da aurretiazko aktatzat. Inbertsio immaterialak egin ez direla egiaztatuz, dagokien fakturaren data bidez egingo da, eta, enplegua sortzeko proiektuen kasuan, gizarte-segurantzaren araudian alta emandako data bidez.

5.– Atetek alderdi hauei buruzko txosten tekniko bat egingo du:

a) Proiektuak PTGEaren eta 4.2 oinarrian aurreikusitako helburuei zenbaterainoko ekarpena egiten dien justifikatuko da. Operazioa zer estrategia zehatzetan kokatzen den aipatu behar da.

b) Proiektuak helburuari zer ekarpen egiten dion aipatuko da, baita programan eta PTGEan aurreikusitako emaitzen adierazle espezifikoak ere.

c) Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programaren (EIAAF) beste lehentasun batzuen helburu espezifikoek zer ekarpen egiten zaion justifikatuko da, bai eta emaitzen adierazleak ere, dagokionean.

d) Baloratuko da zenbateraino betetzen duen proiektuak aukeratutako lurralde-eremuan kokatuta egotearen betekizuna.

e) Eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituen adieraziko da, 6. oinarriaren arabera.

f) Gastuak diruz lagundu daitezkeen adieraziko da, 3., 4., 9. eta 10. oinarrien arabera.

g) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, finantzarioa eta ekonomikoa baloratuko da.

h) Proiektuak ingurumenean eragiten dituen ondorioen balorazioa.

6.– Jarraian, Dirulaguntzen Batzordea eratuko da, eta hura Ateteko ordezkari batek eta Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzako teknikarien artean hautatutako bi pertsonak osatuko dute; horiek zuzendaritzako pertsona titularraren ebazpen bidez izendatuko dira, eta, gainera, Batzordeko idazkaria eta batzordeburua izendatuko dira. Dirulaguntzen Batzordean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin saiatuko da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean ezarritakoa betez.

Organo horrek Atetak egindako txostenak aztertuko ditu, zuzenketak proposatuko ditu eta proiektu bakoitzak dirulaguntza jasotzeko duen eskubidearen irizpen bat emango du. Erabaki hori akatsak zuzentzeko epea amaitu eta bi hilabeteko epean egingo da. Dirulaguntzen irizpenak eta zuzenketa-proposamenak Atetari jakinaraziko zaizkio.

7.– Lan horiek amaitu ondoren, Ateteko teknikariek dagozkion hautaketa- eta balorazio-irizpideak aplikatuko dituzte Ateteko Zuzendaritza Batzordeari kasuan kasuko laguntza-proposamenak helarazteko.

8.– Horren ondoren, Ateteko zuzendaritza-batzordea bilduko da. Batzordeak zeregin hauek izango ditu: Ateteko teknikarien proposamenak aztertzea, aztergai diren espedienteak baloratzea, lortutako puntuen eta dirulaguntzaren ehunekoen arteko egokitasuna ezartzea, eta laguntzak laguntza-ehunekoekin onartu edo ezespren arrazoitua proposatzea.

Horretarako, hiru zerrenda egingo dira, agindu honen 3. oinarrian araututako laguntza mota bakoitzeko bat. Hiru zerrendak goitik beherako hurrenkeran antolatuko dira, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta. Ondoren, laguntzen zenbatekoa zehaztuko da, adierazitako ordenaren arabera, funtsak guztiz agortu arte. Hiru laguntza-modalitateetako bati dagokion kopurua agortzen ez bada, soberakina beste modalitateko diru kopuruari batu ahal izango zaio, 5.2 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

9.– Berdinketarik izanez gero, lehentasun-hurrenkera ezartzeko, irizpide hauek aplikatuko dira bata bestearen ondoren:

- 1) Arrantza-sektorearen dibertsifikazio ekonomikoa sustatzen duten proiektuak, arrantza-sektoretik kanpoko proiektuen aldean.
- 2) Ekonomia urdinerantz dibertsifikatzeko proiektuak, hori egiten ez dutenen aldean.
- 3) Lanpostu gehien sortzen dituzten proiektuak.
- 4) Interes kolektiboko proiektuak, interes partikularrekoen aldean.

10.– Jarraian, Atetaren zuzendaritza-batzordeak ebazpen-proposamena bidaliko dio Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari. Bertan, gutxienez, informazio hau jaso beharko da:

a) Ezestea proposatutako eskabideen zerrenda, dela onuradun izateko baldintzak betetzen ez dituztelako, dela «Itsas Funtsaren, Arrantzaren eta Akuikulturaren Programa»ren (EIAAF), programa operatiboaren edo PTGEaren helburuak lortzen laguntzen ez duten proposamenak direlako, ezesteko arrazoia adieraziz.

b) Diruz laguntzea proposatu den proiektuen zerrenda. Bertan, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa, eskatzailea zein den, inbertsioaren zenbatekoa, gauzatzeko epea eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa jasoko dira.

c) Atzera egin duten eskabideen zerrenda.

16. oinarria.– Ebazpen-proposamena.

1.– Zuzendaritzako titularrak, Atetaren espedientea eta balorazio-txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, jarduketa-lerro bakoitzaren arabera behar bezala arrazoituta.

2.– Interesdunei jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, prozeduran agertzen direnean edo interesdunek azaldutako beste egitate, alegazio eta frogak batzuk kontuan hartzen direnean. Alegazioak aztertuta, halakorik balego, eta oinarri hauetan adierazten diren alderdiak egiaztatuta, zuzendaritza kudeatzailearen titularrak behin betiko ebazpenaren proposamena emango du, dirulaguntzen hartzaile izateko proposatzen den eskatzailea edo eskatzaile zerrenda adierazita, eta zenbatekoa ere bai. Halaber, ebaluazioa eta ebaluaziorako erabili diren balorazio-irizpideak zehaztuko ditu, hala dagokionean.

3.– Aurreko paragrafoan adierazitakoaz kanpo, egindako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluari jarraikiz.

4.– Behin betiko ebazpenaren proposamena onartzen denean, eskumena duen organoari bidaliko zaio, hau da, Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordetzari.

5.– Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez diete administrazio-arloko eskubiderik ekartzen onuradun izateko proposatutakoei.

17. oinarria.– Ebazpena.

1.– Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak egindako proposamena ikusita, ebazpen bat emango du 5. oinarrian aurreikusitako lerro bakoitzeko. Ebazpen hori arrazoitua egon beharko da ebazpen-proposamenarekin bat egiten ez duenean, azken hori ez baita loteslea.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du gutxienez:

a) Onartutako eskabideen kasuan:

- i) Pertsona edo entitate onuradunen izena.
- ii) Diruz lagundutako proiektua.
- iii) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.
- iv) Diruz lagundutako zenbatekoa, urteka eta finantzaketaren jatorriaren arabera banatuta.
- v) Aurreikusitako jarduerak egiteko epea.

vi) Klausula bat, non onuradunari ezartzen baitzaio pertsona juridikoaren eraketa egiaztatuko duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra, hala badagokio, bai eta proiektua gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimenak aurkezteko betebeharra ere.

vii) Nortasun juridikorik gabeko elkarteen kasuan, berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta dirulaguntzatik kide bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa. Kide guztiek izango dute onuradun-izaera.

viii) Minimis araudiak arautzen dituen laguntzen kasuan, gainera, izaera hori adierazi behar da ebazpenean, eta berariaz adierazi beharko da, halaber, laguntza-araubide hau arautzen duen erregelamenduan.

b) Ukatutako eskabideei dagokienez:

- Eskatzaileen izena.
- Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

3.– Agindu hau indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Lehiaketa bidezko prozeduraren ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da. Dena dela, ebazpen osoa helaraziko zaie interesdun guztiei, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira. Nolanahi ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan ezarritako epeetan.

18. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek betebeharrak izango dituzte, bai eta abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan ezarritakoak ere:

a) Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean onuradunak laguntzari beren beregi uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

b) Dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatzea laguntza emateko ebazpenean edo, dagokionean, luzapena emateko ebazpenean ezarritako epean, eta bertan, deialdia egiteko aginduan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan jasotako baldintzak eta betebeharrak betez.

c) Atetari betekizunak eta baldintzak betetzen direla frogatzea, eta hark horren berri emango dio laguntza ematen duen entitateari, eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duen jarduera egin dela eta haren helburua bete dela ere bai, agindu honetan ezarritakoaren arabera. Jarduera pertsoneri buruzkoa bada, datuak sexuaren arabera bereizita eman beharko dira.

d) Dirulaguntza zertarako eman den, xede horrexetarako erabiltzea.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzearen gainekoak ere.

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen betebeharra betetzen dela, onuradunen aldetik berriazko baimenik behar izan gabe. Berriaz uko egiten dionean, onuradunak egiaztatu egin beharko du alderdi hori.

f) Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak egin ondorengo bost urteetan mantentzea gutxienez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 65. artikulua.

g) Ondasun higiezinak eraikitzeko, erosteko edo birgaitzeko proiektuen kasuan, dirulaguntzaren xede diren inbertsioak egin eta gutxienez hurrengo 10 urteetan mantentzea; epe horretan ezingo dira ez besterendu ez amortizatu, ez eta dirulaguntzen xedea ez den beste ezertarako erabili ere. Ondorio horietarako, onuradunak dirulaguntza ematen dion administrazio-ebazpena aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, bat etorritik hipoteka-legeriarekin.

h) Enplegua sortzeko laguntzen kasuan, enpleguei gutxienez hiru urtez eutsi beharko zaie.

i) Atetaren, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren zein Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren eta Europar Batasunaren esku jarri behar dituzte inbertsioa eta gastuak egin direla frogatzeko behar diren agiri guztiak. In situ egiaztatu beharrekoa Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoenean, aitortutako sailkapen sozietate batek egindako txostena onartuko da.

j) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, agindu honen kontura jasotako laguntzen zertarako fiskalizatzeko eginkizunen barruan, eskatzen dieten informazio guztia ematea.

k) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, laguntzaren azken ordainketa jaso den urteko abenduaren 31tik hasita bost urtez gutxienez, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 82. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

l) Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo ente publiko edo pribaturen bati xede bera finantzatzeko, Atetari jakinaraztea (hark laguntza eman duen entitateari jakinaraziko dio), bai eta eman egin dizkietela ere, idatziz, jakin eta hamabost eguneko epean.

m) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatuz gero, inguruabar objektiboa zein subjektiboa izan, horren berri eman behar diote Atetari (hark laguntza eman duen entitateari jakinaraziko dio). Inguruabar hori jakin bezain laster egin behar da jakinarazpena.

n) Merkataritza legeriak eskatutako terminoetan, behar bezala ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako aparteko kontabilitate-sistema bat edo kontabilitate-kode egoki bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

ñ) Diruz lagundutako gastuen eta jardueren inguruan egindako publizitate edo informazio guztietan erraz ikusteko eta ulertzeko moduan adierazi behar da horiek alde batetik Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsarekin (EIAAF) finantzatuta daudela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduaren 60. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsekin, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan zehaztutakoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/>

o) Jarduerarekin lotutako jakinarazpen guztietan, hizkera eta iruditeria inklusiboak erabiliko dira. Ekitaldiaren publizitatean, euskarria edozein dela ere, ez da erabiliko hizkera edo iruditeria sexistarik.

p) Laguntza onartuz gero, onuraduna eragiketa-zerrenda publiko batean sartuko da, eta elektronikoki edo beste baliabide batzuen bidez argitaratuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 49.3 artikulua araberara.

q) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

r) 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 11.1 artikuluan laguntzaren onuradun izateko jasotzen diren baldintzak betetzea, eragiketaren gauzatze-aldi guztian eta onuradunari azken ordainketa egin eta hurrengo bost urteetan. Baldintzak betetzen ez direla antzemanaz gero, 26. oinarrian xedatutakoa beteko da.

2.– Atetek egingo du diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena. Horretarako, egoki irizten dien ikuskatzeak egin ahal izango ditu, betiere diruz lagundutako proiektuak egoki gauzatzen direla egiaztatzearen, eta, ondorio horietarako, onuradunek eman egin behar dute eskatzen zaien informazio eta dokumentazio oro.

19. oinarria.– Komunikazioa eta ikusgarritasuna.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 60.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Batasuneko funtsen hartzaileek finantzaketa horren jatorria aipatuko dute eta ikusgarritasuna emango diote, bereziki ekintzak eta haien emaitzak sustatzen dituztenean, eta informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua emango dute askotariko hartzaileentzat, hedabideak eta herritarrak barne.

2.– «Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren Programa»ren onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Webgunea eta sare sozialak badituzte, eragiketaren deskribapen labur bat sartuko dute, helburuak eta emaitzak adierazita, eta EBren finantza-laguntza nabarmenduz.

b) Eragiketa gauzatzearekin zerikusia duten eta publikoarentzat edo parte-hartzaileentzat diren dokumentuetan eta komunikazio-materialetan, EBren laguntza nabarmentzen duen adierazpen bat sartzea.

c) Publizitate-plakak edo -hesiak, jendeak erraz ikusteko moduko lekuetan, eragiketaren exekuzio fisikoaren hasieran EBren ikurra dutela, inbertsio fisikoa dakarrena edo erositako ekipoa instalatzen badira, betiere eragiketak 100.000 eurotik gorako kostua badu guztira.

d) Aurreko c) letran sartzen ez diren eragiketetarako, gutxienez A3 tamainako kartel bat edo eragiketari buruzko informazioa duen pantaila elektronikoa bat jartzea jendeak erraz ikusteko moduan, Europako Itsas, Arrantzako eta Akuikultura Funtzaren (EIAAF) laguntza nabarmenduta. Onuraduna pertsona fisikoa denean, ahal den neurrian, aipatu Europako Itsas, Arrantzako eta Akuikultura Funtzaren (EIAAF) laguntza nabarmenduko du, jendeak ikusteko moduko leku batean edo pantaila elektronikoa baten bidez.

3.– Batasunaren ikurra Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 47. artikuluan eta IX. eranskinean xedatutakoaren arabera erabiliko da.

20. oinarria.– Gehieneko egikaritze-epeak.

1.– Urtebetean edo zenbait urtetan gauzatu ahalko dira inbertsioak.

2.– Urteko inbertsioak gauzatzeko epea 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

3.– Hainbat urtetako inbertsioak gauzatzeko epea 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

4.– Ezohiko kasuetan, diruz lagundutako jarduera egin eta amaitzeko epeari dagokionez, entitate onuradunaren kontrolatik kanpoko kausak daudenean eta behar bezala justifikatzen direnean, inbertsioa edo gastua amaituta egon behar duen data baino gutxienez 30 egun lehenago idatzizko eskaria aurkeztuta, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak, horretarako emandako ebazpenaren bidez, epea luzatu ahal izango du, jarduketa egiteko emandako hasierako epearen % 50eko gehieneko mugarekin.

5.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako epeetan gauzatu beharko dira.

21. oinarria.– Diruz lagundutako jarduera kontratatzea.

1.– Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikulua aplikatuta, ulertu behar da onuradunak azpikontratatu egiten duela dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean hirugarrenekin hitzartzen duenean. Hortik kanpo gelditzen dira diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko onuradunak egin behar dituen gastuak.

2.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 azpikontratatu dezake onuradunak. Ezin izango da jarduerarik azpikontratatu, baldin eta, diruz lagundutako jardueraren kostua gehituta, inongo balio erantsirik ematen ez badio jardueraren edukari. Hirugarrenekin azpikontratutako jarduerak dirulaguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak aldeztutako kontratua egiteko baimena ematea.

Beste administrazio publiko batek aurretik diruz lagundu badu jarduera, ulertuko da administrazio honek egiaztatu duela eskakizun horiek betetzen direla.

3.– Ezin izango da kontraturik zatitu haren zenbatekoa gutxitzeko eta aurreko apartatuko betekizunak saihesteko.

4.– Onuradunaren aurrean baino ez daude behartuta kontratistak, eta onuradunak osorik bereganatuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ardura.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunei dagokie ziurtatzea, diruz lagunduko den jarduera gauzatzea hirugarrenekin hitzartuz gero, ezarritako mugak berdin errespetatuko direla diruz

lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoari eta izaerari dagokienez; kontratistek abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 42. artikuluan adierazitako lankidetzeta-betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituztela behar bezala egiaztatzeko aukera eman.

6.– Onuradunek inola ere ezingo dute honako hauekin hitzarmenik egin diruz lagundutako jarduera osoa edo haren zati bat gauzatzeko:

a) Abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako galarazpenetako batean dauden edo horri lotuta dauden pertsonekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo entitateak.

c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen badira, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunei lotuta dauden pertsona edo erakundeekin, zeintzuk abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.8 artikuluan ezarritakoak izango diren, honako egoera hauetako batean salbu:

i) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.

ii) Arrantza eta akuikulturako eskumenak dituen zuzendaritzaren alde aurretiko baimena lortzea.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo behar den balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsonekin edo entitateekin.

22. oinarria.– Laguntzak justifikatzea.

1.– Onuradunak egiaztatu beharko du proiektua gauzatu duela, bai eta dirulaguntza ematea eragin zuten betekizunak eta baldintzak betetzen dituela.

2.– Horretarako, laguntza emateko ebazpenean adierazitako epean proiektua amaitu ondoren, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du Atetaren erregistroan edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, 8. oinarriko 2. apartatuan adierazitako helbidean, proiektua gauzatzeko gehieneko epea amaitu eta gehienez ere 10 eguneko epean:

a) Dirulaguntzaren ordainketa eskatzeko idatzia.

b) Proiektua gauzatu dela justifikatzeko memoria, lortutako helburuak aipatuta. Azken ordainketaren kasuan, dagozkion emaitzen adierazleei buruzko informazioa emango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 47. artikulua arabera.

c) Proiektu bererako eskatutako eta lortutako laguntzen erantzukizunpeko adierazpena.

d) Onuraduna izateko betekizunak betetzen jarraitzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpena.

e) Fakturen zerrenda jasotzen duen taula bat, honako hauek adierazita: faktura-zenbakia, jaulkitzen duen enpresaren izena eta IFZ eta zenbateko osoa, BEZa banakatuta.

f) Fakturak, faktura horiek ordaindu izanaren bankuko justifikazio-agiriekin batera. Faktura elektronikoen bidez ere frogatu ahalko dira gastuak, baldin eta zergen alorrean onartuak izateko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hau adieraziko duena: fakturak eta gainerako justifikazio-agiriak ez direla aurkeztu diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko. Aitzitik, agiri horiek aurkeztu baldin badira diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko, zehaztu beharko da programak zein diren eta, faktura edo justifikazio-dokumentu bakoitzari dagokionez, zein den jasotako dirulaguntzaren ehunekoa.

h) Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere. Nolanahi ere, eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio egiaztatpena egiteari, eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu orduan.

i) Eskaera emateko unean oraindik eskuratu gabe zeuden dena delako jarduera motarako baimenak, inskripzioak edo lizentziak, beranduenez, azken ordainketa-eskariarekin batera aurkeztuko dira.

j) Jarduketa batean beharrezkoa bada dagokion elkargo ofizialak proiektu tekniko ikus-onestea, sustatzaileak lehen justifikazioarekin batera aurkeztu beharko du kapituluko aurrekontuaren laburpenaren eta horren memoriaren kopia. Kasu horretan, teknikari eskudunak sinatutako obra-ziurtagiriak aurkeztuko dira.

k) Makineria eta ekipamendua eskuratu izana justifikatzeko dokumentuan diruz lagundutako ekipamenduen zerrenda bat sartu beharko da, honako hauek adierazita: marka, modeloa eta seriezenbakia edo identifikaziorako erreferentzia baliokidea.

l) Azterketak, proiektu teknikoak, planoak eta antzeko dokumentuak egin direla justifikatzeko dokumentuan, sustatzaileak ale bat entregatuko du euskarri informatiko egokian, hedapena egin ahal izateko. Kopia ere erantsi behar dira, liburuak, eskuorriak, gidak eta abar argitaratzen badira. Dirulaguntza mintegiak edo antzeko jarduerak egiteko ematen bada, landutako gaien eta ondorioen kopia bat aurkeztuko da.

m) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ondasuna dirulaguntzaren eragina adierazita erregistratu dela egiaztatzeko dokumentazioa erantsi beharko da, azken ordainketa-eskaerarekin, beranduenez ere.

n) Laguntzaren eskatzailea botere adjudikatzaile bat denean, behar bezala justifikatu beharko du egindako kontratuek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea betetzen dutela.

3.– Enplegua sortzeko laguntzak. Kasu horietan, frogagiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Besteren konturako kontratazioaren kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: lan-kontratuen kopia, Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela egiaztatzeko dokumentazioa, kontratazioaren hilabeteko TC2 ereduak, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena eta kontratatutako pertsonaren errolda-ziurtagiria, II. eranskinetako udalerriren bateko bizilaguna dela egiaztatzen duena.

b) Jarduera independenteen sorreraren kasuan, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena, II. eranskinetako udalerriren bateko bizilaguna dela egiaztatzeko errolda-ziurtagiria eta Gizarte Segurantzaren erregimeneko alta.

4.– Inbertsio-proiektuei buruzko urte anitzeko dirulaguntzen kasuan, onuradunak egiaztatu beharko du ekitaldi bakoitzari dagokion proiektua egin duela. Horretarako, 8. oinarriko 2. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du Atetaren erregistroan edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (8. oinarriko 2. apartatua adierazitako helbidean), dagokion urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 10a baino lehen.

5.– Atetak hautatu diren proiektuak gauzatu izanaren frogagiriak jasoko ditu, eta osorik daudela egiaztatuko du.

6.– Zati baten edo azken ordainketaren aurretik, Ateteko langileek inbertsioaren egiaztapen materiala egingo dute in situ, bermatzeko egiaztatu beharreko ondasuna benetan existitzen dela, baloratutako proiektu edo memoriaren arabera dela, erabilgarria dela eta funtzionatzen duela, dokumentu bidezko justifikazioarekin bat egiten duela, onuradunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduak ezarritako publizitate-arauak betetzen dituela, bai eta beharrezkoak diren beste edozein egiaztapen egiteko ere, diruz lagundutako inbertsio edo gastuen arabera.

Egiaztapen materialaren akta proiektua justifikatzeko epemuga eta 5 egunera egingo da, beranduenez ere. Kudeaketa egokia eta laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea 10 egunekoa izango da, inbertsioaren edo gastuaren azken egunetik aurrera.

Ateteko langileek, inbertsioak eta gastuak egiaztatu ondoren, egiaztapen-proposamen bat emango dute, eta hori oinarri hartuta Atetak ordainketa-proposamena aurkeztuko dio Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari.

7.– Edozein ziurtagirirekin batera –bai partzialak bai azkenekoak– Atetak txosten bat eman beharko du, honako hau adieraziz:

a) Ondasunen hornikuntza, zerbitzu-prestazioa eta, oro har, haren kostua diruz laguntzen den jardura benetan egin direla ezarritako epean, baldintzak betetzen dituela eta laguntza emateko xedearekin bat egiten duela, zer egiaztatzen den zehaztuta, onartutakoaren aldean, eta zer aldaketa egon diren aurrekontu-sailen artean edo aurreikusitako inbertsioetan.

b) Ziurtagiri bakoitzean aitortutako gastuak diruz lagundu daitezkeela, fakturen bidez edo frogatzeko gaitasun baliokidea duten kontabilitateko dokumentuen bidez justifikatuta daudela eta ordaindu direla.

c) Onuradunak behar bezala kontabilizatu dituela exekuzio bakoitzarekin lotutako finantza-eragiketak.

d) Onuradunak Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzaren (EIAAF) erregelamenduan ezarritako publizitate-arauak betetzen dituela. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamendua.

e) Kontratazio publikoaren eraginpeko espedienteen kasuan, txostenean idatziz jasoko da kontratazioa estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren arabera egin dela.

8.– Atetek ziurtatutako operazioen justifikazio-dokumentazioa gorde eta zainduko du, eta bermatu egingo du dokumentazio hori eskatzen duten kontrol-organoen eskura jartzen dela; nahitaez gorde beharko ditu espedienteak, gutxienez, azken operazioa amaitu eta hurrengo bost urteetan, eta programa eragilea itxi eta hurrengo hiru urteetan.

23. oinarria.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Ordainketak laguntza aurreko oinarrian ezarritako baldintzetan arrazoitu ondoren eta Ateteko teknikariak ziurtapena egin ondoren egingo dira. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak gainbegiratuko du Atetaren ordainketa-proposamena.

2.– Inbertsio-proiektuei dagozkien urte anitzeko dirulaguntzen kasuan, urte bakoitzari dagozkion ordainketa partzialak egingo dira, 22. oinarriko 4. puntuan ezarritako justifikazio-sistemaren arabera.

3.– Inbertsioen kasuan, bi zati ordaindu ahal izango dira interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak, alegia, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeak, aurkeztu ondoren.

4.– Enplegua sortzeko laguntzen kasuan, 22. oinarriko 3. puntuan adierazitako kontratazioaren ziurtagiriak aurkeztu eta egiaztatu ondoren egingo da ordainketa, jarduera independenteen kasuan, laguntza ematea justifikatu zuen itsasertzeko udalerrian bizitzen jarraitzen dutela egiaztatu ondoren.

5.– Dirulaguntzaren xede den proiektua ezarritako gehieneko epeen barruan egiten ez bada edo egiaztatzeo dokumentazioa aurkezten ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

6.– Ez da inolako ordainketarik egingo pertsona edo entitate onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo, itzulketa-ebazpen batek hala adierazita, zordun bada. Dirulaguntza eman aurretik egiaztatuko da horrelakorik gertatzen ez dela.

7.– Dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean 8. oinarriko 4. apartatuko b) letran aipatzen den hirugarrenen alta jaso beharko da. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke dagokion zerbitzuaren bidez, baita egoitza elektronikoa ere, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

24. oinarria.– Beste laguntzarik jasotzea eta dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, hori justifikatu eta jakinarazi beharko zaio, idatziz, Atetari, egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen. Gerta liteke, ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak eta laguntza ematea eragin zuen xedea bete behar izango dira.

Horretarako, zuzendaritza eskuduneko titularrak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, hala egokituz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko. Hala bada, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan jasotako itzulketa-prozedurari ekingo zaio.

2.– Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako betekizunak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada baina proiektua ez bada funtsean aldatzen eta, betiere, agindu honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Atetari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz. Hala ere, ez da aldatuko dirulaguntza emateko ebazpena.

Aitzitik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada aurreikusitako epeetan gauzatzen, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatzen bada eta, horren guztiaren ondorioz, proiektua funtsean aldatzen bada baina laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Atetari idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio. Atetak, egiaztatu beharrekoak egiaztatu ondoren, ebazpena aldatzeko proposamena egingo dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari, eta azken horrek erabakiko du aldaketa egingo den ala ez.

3.– Dirulaguntza ematen duen organoaren ebazpen bidez, emandako dirulaguntza aldatzea adostu ahal izango da abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluko betekizunak betetzen badira.

4.– Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, arrantzan eta akuikulturan

eskumena duen sailburuordetzako titularraren likidazio-ebazpenaren bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zai.

#### 25. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntzaren eskatzaileak aukera izango du eskabide horretan atzera egiteko. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta arrantza eta akuikulturaren alorrean eskumena duen zuzendaritzako titularra izango da, ebazpen bidez, bete-betean onartuko duena atzera egite hori eta prozedura bukatutzat joko duena entitate horri dagokionez.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Emandako laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin. Uko egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta arrantza eta akuikulturaren alorrean eskumena duen sailburuordetzako titularra izango da, ebazpen bidez, berariaz onartuko duena uko egite hori eta prozedura bukatutzat joko duena entitate horri dagokionez.

#### 26. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntza emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu betetzen proiektuaren zati bat (eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikularekin bat etorriz, laguntza eman zuen organo eskudunak, ez-betetzearen espedientea izapidetu ondoren (interesdunari entzun eta gero), ebazpen baten bidez, dirulaguntza osoa edo zati bat jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalean) eta berandutze-interesak, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoak diren gainerako akzioak kontuan izanda.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako dirulaguntzaren itzulketa prorrata temporis egingo da.

2.– Itzultze-prozedura administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zai dagokion zehatze-prozedura hasteko.

3.– Era berean, minimis laguntzen araubideari atxikitako laguntzen kasuan, laguntza horiek itzultzeko eska daiteke Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 3.2 artikuluan ezarritako mugak gainditzen badira.

4.– Horrela, 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 11. artikuluko ez-betetzeak antzemanaz gero, laguntza berreskuratu beharko da. Horretarako, laguntzaren azken ordainketaren kontabilitate-data eta onuradun izaera bete ez den data hartuko dira 11. artikuluan aipatzen den 5 urteko aldia kalkulatzeko erreferentzia gisa. Arau-haustea, legez kanpoko arrantza-ontzi deklaratu eta arautu gabeen zerrendan edo lankide ez diren hirugarren herrialdeen zerrendan sartzea, delitua edo iruzurra diruz lagundutako ekintza gauzatzen den bitartean egin bada, laguntzaren zenbateko osoa berreskuratuko da. Aitzitik, onuradunari azken ordainketa egin ondoren egiten badira, baina betiere 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 11.2 artikuluan aipatutako 5 urteko epea igaro aurretik, berreskuratu beharreko zenbatekoa haren 44. artikularekin bat etorriz kalkulatu da.

27. oinarria.– Estatuaren laguntzak eta bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak, Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari atxikitzen bazaizkio, ez dira 300.000 eurotik gorakoak izango hiru urteko edozein alditan. Laguntza hauek bateragarriak izango dira onuradun berek administrazio publiko honetatik edo beste batzuetatik jasotako beste minimis laguntza batzuekin, horien xedea edozein izanik ere, betiere laguntzen metaketak ez badu gainditzen onuradun bakoitzak hiru urtetan jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak, Batzordearen abenduaren 14ko 2022/2473 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari atxikitzen bazaizkio, ez dira 200.000 eurotik gorakoak izango proiektuko. Laguntza hauek bateragarriak izango dira proiektu berak jasoko dituen beste laguntza batzuekin, betiere pilatzeak ez badu eragiten arau honetan proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko kopurua gainditzea.

28. oinarria.– Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko orduan, berariaz beteko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

Helbide honetan dago jasota datuak babesteari buruzko informazioa:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001400-cap2-eu.shtml>

## II. ERANSKINA

## LAGUNTZA HONEN XEDE DIREN KOSTALDEKO UDALERRIAK

Udalerrria
Santurtzi
Bermeo
Ondarroa
Pasaia
Lekeitio
Zierbena
Berriatua
Hondarribia
Mundaka
Lemoiz
Plentzia
Donostia (portu ingurua)
Mutriku
Zumaia
Orio
Getaria
Elantxobe

## III. ERANSKINA

## ESKAERAREN EDUKIA

## 1.– Identifikazioa.

a) Eskatzailea (pertsona edo entitatea, telefonoa, helbide elektronikoa, jaiotze-data, sexua, helbidea, ohartarazpenak jasotzeko datuak, jakinarazpenen hizkuntza) edo ordezkariaren datuak.

## 2.– Oinarrizko datuak.

a) Eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden.

## 3.– Eskabide-datuak.

a) Laguntza-lerroa.

## 4.– Proiektuaren datu orokorrak.

a) Proiektuaren izena.

b) Proiektuaren kokapena.

c) Proiektuaren deskribapena (datak eta deskribapen laburra).

d) Proiektua estrategiaren barruan sartzea (PTGE).

e) Proiektuaren ezaugarriak.

f) Inbertsioaren/gastuaren zenbatekoa (kontzeptuen eta urteen arabera banakatuta).

g) Finantzaketaren jatorria.

h) Kanpo-finantzaketaren deskribapena, hala badagokio.

i) Proiektu motaren arabera adierazleak (enplegu-datuak).

## 5.– Proiektuak PTGEaren estrategiei egiten dien ekarpena.

E.1.– Belaunaldien arteko erreleboa sustatzea, lan-baldintzak hobetzea eta sektoreko prestakuntza.

E.2.– Arrantza-produktuak desberdintzea, sustatzea eta merkaturatzea.

E.3.– Arrantzako identitatea, jarduera eta lanbideak balioestea.

E.4.– Arrantza-sektorearen jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea, eta besteren konturako kontratazioa sektorearen dibertsifikazio-jardueretan.

E.5.– Arrantza-lurraldean mota guztietako jarduera ekonomikoak bultzatzea, ahal izanez gero ekonomia urdinekoak.

E.6.– Autoenplegua sustatzea eta babestea, batez ere ekonomia urdinekoa, eta besteren konturako kontratazioa, ekonomia urdineko jardueretan soilik.

E.7.– Itsasoko eta arrantzako ondarearen baliabideak berreskuratzea, kontserbatzea, nabarmentzea edo horiek aprobeztatzea jarduera ekonomiko berrietarako.

E.8.– Arrantza-lurraldean hazkundera eta ekonomia urdina sentibilizatzea, sustatzea eta dinamizatzea.

E.9.– Trantsizio ekologikoa, energetikoa, digitala eta klima-aldaketarena.

E.10.– Elkarlaneko gobernantza, lankidetzeta eta sareko lana.

6.– Proiektua edo jarduera baloratzeko deskribapen-memoria.

## IV. ERANSKINA

## PROIEKTUA BALORATZEKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

## (EKOIZPENEKO INBERTSIO-PROIEKTUAK)

## 1.– Proiektuaren ekarpena udalerriri.

Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez. Eragina eta emaitzak (proiektuak nola lagunduko duen udalerrria, eskualdea, lurraldea eta abar garatzen).

## 2.– Sustatzailea.

– Pertsona fisikoen kasuan, honelako proiektu bat martxan jartzeko ezaugarri pertsonal eta profesionalak (CV).

– Funtzionamenduan dauden enpresen kasuan, eginiko jardueren gaineko memoria.

– Arrazoiak eta helburuak.

## 3.– Proiektuaren tutoretza.

– Ekintzailertzan espezializatutako entitate baten enpresa-idea garatzeko gainbegiratzea/tutoretza

– Ekintzailertzan espezializatutako entitate baten ekintzailertza-ibilbidean parte hartu izana

## 4.– Proiektua.

4.1.– Laburpena: negozio-idea azaltzea eta proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak nabarmentzea.

## 4.2.– Funtzionamenduan dauden enpresentzat:

– Pertsona fisikoak: PFEZaren azken bi aitorpenak entregatzea.

– Sozietateak: azken bi urteetako kontu ikuskatuak, horiek egiteko beharra izanez gero. Bestela, sozietateen gaineko zerga.

## 4.3.– Merkatuaren analisia:

– Produktuaren/zerbitzuaren deskribapena.

– Eragiketa-plana: baliabide teknikoen, giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena.

– Sektorearen azterketa: sektorearen ezaugarri bereizgarrienak.

– Merkatuaren identifikazioa eta segmentazioa.

– Bete beharreko premiak: negozioa abian jartzeko aurkitutako premiak.

– Xede-publikoa edo bezeroak: produktua/zerbitzua nori zuzenduta dagoen zehaztea.

– Lehiakideak identifikatzea: lehiakideak identifikatzea eta haiekiko abantailak azaltzea.

## 4.4.– Marketin-plana.

– Produktu- edo zerbitzu-politika: produktu/zerbitzu bakoitza banatu eta merkaturatzeko era.

– Prezioa: produktu/zerbitzu bakoitzaren prezioa zehaztea. Lehiakideen prezioekin konparatzea eta justifikatzea.

– Kominikazioa: sustapen- eta publizitate-jarduerak.

4.5.– Proiektuak enplegua sortzeko duen gaitasuna.

– Langileak (pertsonea kopurua) eta lanpostuen definizioa.

– Sortutako lanpostuak, horien ezaugarriak eta kontratatutako pertsonen helbidea, sexua eta adina.

4.6.– Ingurunearen analisia eta berrikuntza- eta lankidetzeta-maila.

– Laburpen laburra: proiektuak zer-nolako ekarpena egingo duen udalerrria, eskualdea eta lurraldea garatzeko, eta eremu horietako berrikuntza- eta lankidetzeta-maila. Beste enpresa/sustatzaile batzuekin lankidetzeta-akordiorik egonez gero, akordio horiek azaldu behar dira.

4.7.– Ingurumen-jasangarritasuna:

– Ingurumen-inpaktuaren balorazioa.

– Ingurumen-jasangarritasuna bultzatzen duten ekintzarik egonez gero, azaldu zeintzuk diren.

4.8.– Enpresaren ekonomia- eta finantza-plana.

– Hasierako inbertsioak.

Hasierako inbertsioen plana		
Kontzeptua	Zenbatekoa	%
<b>Ibilgetu materiala</b>		
Eraikinak, lokalak, obrak eta lursailak		
Instalazioak		
Garraio-elementuak		
Bulegoko tresnak eta altzariak		
Makineria eta erremintak		
Informatika-ekipoak eta -aplikazioak		
<b>Ibilgetu immateriala</b>		
Softwarea		
Markak eta patenteak		
I+G		
<b>Zirkulatzailea</b>		
Izakinak		
Bezeroak		

2025eko urriaren 30a, osteguna

Hasierako inbertsioen plana		
Kontzeptua	Zenbatekoa	%
<b>Finantza-inbertsioak</b>		
Gordailuak eta fidantzak		
<b>Bestelako gastuak</b>		
Eskualdatze-eskubideak		
Aurretiazko azterlanak		
Eratze-gastuak (lizentziak, baimenak...)		
Hasierako gastuak soldatetan		
<b>Guztira</b>		

– Hasierako finantzaketa.

Finantzaketa-plana		
Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Bertako baliabideak		
Kanpoko finantzaketa		
<b>Guztira</b>		

Kanpoko finantzaketa			
	Zenbatekoa	Interesa	Epea
1. mailegua			
2. mailegua			
<b>Guztira</b>			

– Inbertsioak egiteko kronograma.

– Aurreikusitako emaitzen kontua.

Emaitza-kontua			
Kontzeptua	Saldoa		
	1. urtea	2. urtea	3. urtea
<b>Diru-sarrerak</b>			
Salmentak (bezeroak)			
Beste sarrera batzuk			
Sarrera finantzarioak			
<b>Sarrerak, guztira</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Kostuak</b>			
Erosketak			
Lokala alokatzea			

2025eko urriaren 30a, osteguna

Emitza-kontua			
Kontzeptua	Saldoa		
	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Hornikuntzak (ura, argia, gasa...)			
Izakinen aldaketa			
Kanpoko zerbitzuak			
Tributuak			
Langileen kostuak			
Finantza-kostuak			
Amortizazioak			
Hornidurak			
Kostuak guztira	0	0	0
Irabaziak/Galerak	0	0	0

## – Diruzaintza-plana

Diruzaintza-aurreikuspena					
Kontzeptua	Saldoa				
	1. hila	2. hila		12. hila	Guztira
Kobrantzak					
Kobrantzak					
Kobrantzak guztira	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Ordainketak					
Ordainsari propioak					
Gizarte Segurantzza					
Hornikuntzak					
Kanpoko gastuak					
Garraioa					
Hainbat gastu					
Alokairuak					
Aseguruak					

## V. ERANSKINA

## PROIEKTUA BALORATZEKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

## (ENPLEGUA SORTZEKO PROIEKTUAK)

## 1.– Proiektuaren ekarpena udalerriri edo eskualdeari.

Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez. Eragina eta emaitzak (proiektuak nola lagunduko duen udalerrria, eskualdea, lurraldea eta abar garatzen).

## 2.– Sustatzailea.

– Pertsona fisikoen kasuan, honelako proiektu bat martxan jartzeko ezaugarri pertsonal eta profesionalak (CV).

– Funtzionamenduan dauden enpresen kasuan, eginiko jardueren gaineko memoria.

– Arrazoiak eta helburuak.

## 3.– Proiektuaren tutoretza.

– Ekintzailertzan espezializatutako entitate baten enpresa-idea garatzeko gain-begiratzea/tutoretza.

– Ekintzailertzan espezializatutako entitate baten ekintzailertza-ibilbidean parte hartu izana.

## 4.– Proiektua.

4.1.– Laburpena: negozio-idea azaltzea eta proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak nabarmentzea.

## 4.2.– Funtzionamenduan dauden enpresentzat:

Pertsona fisikoak: PFEZaren azken bi aitorpenak entregatzea.

Sozietateak: azken bi urteetako kontu ikuskatuak, horiek egiteko beharra izanez gero. Bestela, sozietateen gaineko zerga.

## 4.3.– Proiektuak enplegua sortzeko duen gaitasuna:

Langileak (pertsona kopurua) eta lanpostuen definizioa.

Sortutako lanpostuak, horien ezaugarriak, bai eta kontratatutako pertsonen helbidea, sexua eta adina ere.

## 4.4.– Ingurunearen analisisa eta berrikuntza- eta lankidetzeta-maila:

Proiektuak zer-nolako ekarpena egingo duen udalerrria, eskualdea eta lurraldea garatzeko, eta eremu horietako berrikuntza- eta lankidetzeta-maila. Beste enpresa/sustatzaile batzuekin lankidetzeta-akordiorik egonez gero, akordio horiek azaldu behar dira.

## 4.5.– Jasangarritasuna:

Sortutako lanpostuen jasangarritasunaren balorazioa.

Enpleguaren jasangarritasuna bultzatzen duten ekintzarik egonez gero, zeintzuk diren azaldu behar da.

## VI. ERANSKINA

PROIEKTUA BALORATZEKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA  
(EKOIZPENEKOAK EZ DIREN INBERTSIO-PROIEKTUAK)

## 1.– Proiektuaren ekarpena udalerriri edo eskualdeari.

Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez. Eragina eta emaitzak (proiektuak nola lagunduko duen udalerrria, eskualdea, lurraldea eta abar garatzen).

## 2.– Sustatzailea.

– Pertsona fisikoen kasuan, honelako proiektu bat martxan jartzeko ezaugarri pertsonal eta profesionalak.

– Funtzionamenduan dauden enpresen kasuan, eginiko jardueren gaineko memoria.

– Arrazoiak eta helburuak.

## 3.– Proiektua.

3.1.– Proiektuaren memoria deskriptiboa, lortu nahi diren edo espero diren helburuak eta garapen ekonomiko-finantzarioa aipatuz.

## 3.2.– Ingurunearen analisisa eta berrikuntza- eta lankidetzeta-maila.

Laburpen laburra: proiektuak zer-nolako ekarpena egingo duen udalerrria, eskualdea eta lurraldea garatzeko, eta eremu horietako berrikuntza- eta lankidetzeta-maila. Beste enpresa/sustatzaile batzuekin lankidetzeta-akordiorik egonez gero, akordio horiek azaldu behar dira.

## 4.– Finantzaketa.

Finantzaketa-plana		
Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Bertako baliabideak		
Kanpoko finantzaketa		
Guztira		

Kanpoko finantzaketa			
	Zenbatekoa	Interesa	Epea
1. mailegua			
2. mailegua			
Guztira			

## VII. ERANSKINA

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DIRULAGUNTZAREN ONURADUN IZATEKO BETEKIZUNAK BETETZEARI ETA DEBEKURIK EZ IZATEARI BURUZKOA

Erantzukizunpeko adierazpenean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak eta aipatzen diren gainerako legezko debekuak betetzen direla dioen adierazpena jasoko da, bai eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko urriaren 15eko Aginduan aurreikusitakoak ere. Agindu horren bidez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategiaren (PTGE) babesean proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira 2025eko ekitaldirako. Estrategia hori arrantza-sektoreko toki-ekintzako taldeari (Atet) onartu zitzaion, arrantza-eremuen garapen jasangarrirako, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzaren (EIAAF) esparruan.

- Inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.
- Proiektua hasi gabe zegoen.
- Beteak dituela indarrean dauden xedapenek zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak.
- Ezin hartu daitekeela krisialdian dagoen enpresatzat, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).
- Proiektuak bete egiten dituela ingurumenaren arloko arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den berariazko araudiari jarraikiz (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa).
- Jakinaraztea ea diruz lagundu daitekeen proiektu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu zaion administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturen bati, baita eskuratu den edo ez ere.
- Egunean dagoela kantitateen ordainketari dagokionez, baldin eta halakorik zehaztu bada EAEko Administrazioak eta haren mendeko enteek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruko itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean.
- Ezin izan bada lortu onuradun izateko debekuen pean ez dagoela egiaztatzen duen lekukotza judizialik, ziurtagiri telematikorik edo datu-transmisiorik, edo administrazio-ziurtagiririk, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, honako hauek adierazten dituen:

Ez zehatuta egotea ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzearekin, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ez jaso izana zehapen administratibo edo penalik sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko araudia ez betetzeagatik, edo kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldia igarota ez egotea.

Ez izatea egin hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaririk, ez egotea kaudimengabetzat deklaraturata ezein prozeduratan, ez egotea hartzekodunen konkurtsoan deklaraturata –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, eta ez egotea epailearen esku-hartzearen mende edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

- Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta ez egotea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Ez duela eragin Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik, bera suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaraturatuta.
- Ez duela urratu Espainiako araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Espainiako legeriak xedatutako baldintzetan sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere (50 langiletik gorako enpresak).
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela Kargu publikoen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez dutela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.
- Zerga-egoitzarik ez duela erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- Elkarteen kasuan, ez dagoela Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausetan. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez dago etenda ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan.
- Ez dagoela zigortuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.
- LGTBI-fobia ez gauzatzea, bultzatzea edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Bete izana desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota, eta bete ez badu, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu duela.
- Enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik ez duela jaso, abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Baimenduta egonik eskatutako laguntza bateragarria izatea jarduera beretarako aitortu edo ordaindutako beste laguntza batzuekin, ez duela gainfinantzaketarik, hargatik eragotzi gabe etorkizunean helburu bererako jasotzen dituen laguntzen berri ematea, laguntza likidatu arteko aldian.
- Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

□ Entitate ordezkatuaren inskripzioa egiteko administrazio-prozedura ez dagoela etenda ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela dioen ebazpen judizial irmorik ematen ez den bitartean.

□ Aurreko hiru ekitaldietan jasotako minimis laguntzen zenbateko osoak ez duela 300.000 euroko muga gainditzen laguntza hau eman aurreko hiru urteetan –muga hori Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan dago jasota, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoan–, ezta gainerako arauetan minimis mekanismo horretarako berariaz ezarritako beste muga batzuk ere.

□ Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzea, legeak ezarritakoari jarraikiz. Halaber agertu beharko da onuradunaren baimen inplizitua Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak automatikoki egiazta dezan zerga-betebeharrak bete dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean dituela; aukera izango du baimen hori espresuki ukatzeko, eta, kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko du dagokion ziurtagiria edo eskatutako agiria.

• Ez dagoela ezein berreskuratze-aginduren eraginpean, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

• Enpresa mota. Markatu dagokiona:

□ Enpresa txiki edo ertaintzat hartu daitekeela, Batzordearen 2023ko urriaren 17ko 2023/2775 (EB) Zuzentarau Delegatuan xedatutakoaren arabera. Zuzentarau horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentaru aldutzen du, enpresen edo talde mikro, txiki, ertain eta handien tamainaren irizpideak egokitzeari dagokionez.

Enpresaren kategoria:

– ETE-mikroenpresa (10 enplegatu baino gutxiago; 2 milioiko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

– ETE-enpresa txikia (50 enplegatu baino gutxiago; 10 milioi euroko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

– ETE-enpresa ertaina (250 enplegatu baino gutxiago; 43 milioi euroko edo hortik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

□ Enpresa ez da ez enpresa txikia ez ertaina, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat.

• Enpresaren kategoria, sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan islatzen dena, ez dela aldatu.

• Ez dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 11.1 eta 3 artikuluetako inguruabarretan, hau da:

a) Ez du arau-hauste astunik egin, Kontseiluaren 1005/2008 (EE) Erregelamenduaren 42. artikuluan edo 1224/2009 (EE) Erregelamenduaren 90. artikuluan arabera, edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak APEn esparruan onartutako beste legegintzako egintza batzuen arabera.

b) Ez da egon, 1005/2008 (EE) Erregelamenduaren 40. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, Batasuneko legez kanpoko arrantza-ontzi deklaratu eta arautu gabeen zerrendan sartuta dagoen arrantza-ontziren baten ustiapenean, kudeaketan edo jabetzan inplikaturik, edo erregelamendu horren 33. artikuluan ezarritakoaren arabera hirugarren herrialde ez-kooperatzaileetat hartzen diren herrialdeen bandera duen ontziren baten ustiapenean, kudeaketan edo jabetzan nahasita.

c) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/99/EE Zuzentarauaren 3. eta 4. artikuluetan ezarritako ingurumen-delituren bat egin ez duela, laguntza-eskaera 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren 27. artikuluan arabera aurkezten den kasuetan.

d) Arrantza Politika Erkidearen arau-hauste astunik egin ez duela.

e) Behin betiko ebazpen bidez iruzurra egin duela zehaztu ez bada, 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan definitzen den moduan, EIAFren edo EIAAFren testuinguruan.

- Konpromisoa hartzen dut aurretik adierazi dudana betetzeko, adierazpen hau aurkezten dudanetik hasi eta deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza guztia justifikatu arteko denbora-tarte osoan.

- Konpromisoa hartzen dut emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte adierazitako inguruabarretan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko.

## VIII. ERANSKINA

## ORDAINKETA-EPEAK BETETZEA

(Eranskin honen ondorioz aurkeztu beharreko agiriak ez zaizkie eskatuko irabazi-asmorik gabeko entitateei. 30.000 euro edo gutxiagoko dirulaguntza eskatzen bada ere, ez da eskatuko).

Onuradunaren edo entitate laguntzailearen izaera lortzeko, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitateek ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu egin beharko dute betetzen dituztela lege horretan ezarritako ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Betetze-maila egiaztatzeko, frogagiri hauek aurkeztu ahal izango dira:

a) Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu dezaketen pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkeztu dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan administrazio-organoak edo haren baliokideak izenpetuta. Horrez gainera, b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudiari jarraituz.

b) Kontabilitateko araudiaren arabera galderen eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoek hauetako bat aurkez dezakete:

1.– Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako azken urteko kontuen memorian deskribatutako ordainketen arloko informazioaren transkripzio banakatua jasotzen duena, baldin kontu horietatik ondorioztatzen bada abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-maila lortu dela, apartatu honetan zehaztutakoa, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatutako informazioa kontuan hartuta. Hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte balio izango du ziurtagiri horrek.

2.– Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria ezin bada egin, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako «Prozedura Adostuei buruzko Txostena», zeinaren bidez, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaindu gabe dauden fakturen lagin adierazgarrian oinarrituta, ondorioztatzen baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak bete direla, inolako salbuespenik gabe, edo, salbuespenak antzemanaz gero, apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea ez dutela eragozten.

Lege horri dagokionez, ordainketa-epeak betetzeko eskakizuna betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epe horien betetze-maila Enpresak Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

## IX. ERANSKINA

## DE MINIMIS LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA

Eskatu ditu/Ez ditu eskatu eta Lortu ditu/Ez ditu lortu diruz laguntzekoa den gastu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabide ekonomikoak –de minimis araubidean– administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribaturen baten eskutik 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan.

Lortu baldin baditu,

2022: lortutako zenbatekoa: \_\_\_\_\_ eta entitate deitzailea: \_\_\_\_\_

2023: lortutako zenbatekoa: \_\_\_\_\_ eta entitate deitzailea: \_\_\_\_\_

2024: lortutako zenbatekoa: \_\_\_\_\_ eta entitate deitzailea: \_\_\_\_\_